

BIDENTEAK GARA

Patricia Urrutia Urieta
Amaia Irazabal Blanco
Iñaki Ziarrusta Hernaez
Itziar Rekalde Luzarraga
Ane Gebara Gonzalez de Axpuru
Gontzal Uribe Cuerno
Marina Suarez Ortiz de Zarate
Horman Poster kolektiboa
Telmo Irureta Uria eta Maite Aizpurua Olaizola
Eneritz Artetxe Aranaz
Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garaialde
Formol Laborategia
Oier Guillan Bermudez

SAR HITZA:

EHAZE-Antzerkizale elkarte

HITZAURREA:

Arantzazu Fernandez Iglesias

Izenburua: Bidenteak gara.

Lehen edizioa: 2020ko azaroa.

Liburu honek Creative commons lizentzia du:



Edizio honena: EHAZE-Antzerkizale elkarte eta Baratza aretoa.

Testuarena: Egile bakoitzak bere testuarena.

Azaleko irudiarena: Marina Suarez Ortiz de Zarate.

Liburuaren osaketan parte hartu dute:

Edizioa eta ekoizpena: EHAZE-Antzerkizale elkarte eta Baratza aretoa.

Euskara aholkularia: Agus Perez.

Koordinazio teknikoa: Metrokoadroka sormen laborategia.

Diseinua: Allende Arnaiz eta Idoia Beratarbide.

Maketazioa: Allende Arnaiz eta Joseba Roldan.

EHAZE-Antzerkizale elkarte

53 posta kutxa / 20002 Donostia

Tel.: 675945734

info@ehaze.eus

www.ehaze.eu

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak. 20140 Andoain.

ISBN: 978-84-09-25304-3



BIDENTEAK GARA

Patricia Urrutia Urieta
Amaia Irazabal Blanco
Iñaki Ziarrusta Hernaez
Itziar Rekalde Luzarraga
Ane Gebara Gonzalez de Axpuru
Gontzal Uribe Cuerno
Marina Suarez Ortiz de Zarate
Horman Poster kolektiboa
Telmo Irureta Uria eta Maite Aizpurua Olaizola
Eneritz Artetxe Aranaz
Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garaialde
Formol Laborategia
Oier Guillan Bermudez

SAR HITZA:

EHAZE-Antzerkizale elkarte

HITZAURREA:

Arantzazu Fernandez Iglesias

Aurkibidea

Sar hitza EHAZE	9
------------------------------	---

HITZAURREA

Eta horregatik Arantzazu Fernandez Iglesias	13
--	----

BIDENTEAK GARA

Esperantzara kondenatuak Patricia Urrutia Urieta	23
2020ko ekainaren 20a Amaia Irazabal Blanco	31
Lastozko etxea Iñaki Ziarrusta Hernaez	35
Igarlearena egiten Itziar Rekalde Luzarraga	49
Ja edo baiezkoen mundua Ane Gebara Gonzalez de Axpuru	55
Eszenatokia ispilu Gontzal Uribe Cuerno	61
Irlak gara Marina Suarez Ortiz de Zarate	69
Behor fin baten atzetik Horman Poster kolektiboa	81
200 pultsazio minutuko Telmo Irureta Uria eta Maite Aizpurua Olaizola	93
Ratikulin fiu fiu Eneritz Artetxe Aranaz	109
Didaskaliak Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garaialde	117
Hamsterraren teoria eta hiru burutazio idealistopraktiko Formol Laborategia	127
Icebergaren ipurdia Oier Guillan Bermudez	135

BIOGRAFIAK

Egileak	145
---------------	-----

SAR HITZA

EHAZE-Antzerkizale elkarte

2020ko udaberrian, beste hainbat ekitaldirekin gerta-
tu bezala, bertan behera geratu zen Gasteizko Baratza
Aretoak antolatu ohi duen Zurrunbilo jaialdia. Ohiko mo-
duan, euskarazko dramaturgia berriei erakusleihoa eskain-
tzeaz gain, gogoeta gune zabala izatea zuen xede jaialdiak.
Oraingoan aurrekariak ere baziren: besteak beste, 2019ko
Azpeitiko Antzerki Jardunaldietan “Euskal antzerkiaren le-
kua” ekimena antolatu zen, zeinetan euskarazko antzerkia
saretzeko eta ahalduntzeko ahalegin bat egin zen; Gasteizko
asmoa zen Azpeitian abiatutako ekimenari jarraipena ema-
tea, baina izurriteak guztia paralizatu zuen. Ez kasualitatez,
itxialdian ginen bitartean kultur sektoreak bere osotasunean
kulturaren balio soziala aldarrikatu zuen entretenimen-
du hutsetik haratago, eta Euskal Herrian bizi duen egoera
prekarioa salatu. Hortik etorri ziren hainbat ekimen, haien
artean greba digitala.

Baratza aretoko lagunek Zurrunbiloko topaldia egiteko
ahalegina egin zuten. Jende ugari bildu zen pantailaren au-
rrean gogoeta egiteko. Esan gabe doa, telematikoki asanbla-
dak egitea eta gogoetak partekatzea ez da batere erraza, eta
topaldia sinbolikoa izan zen batez ere. Baina garrantzitsuena
eginda zegoen: saretze baten hastapena, dramaturgia be-
rriei sektore eszenikoaren errealitatea bisibilizatzea, egun
euskaraz Euskal Herrian lan egiteak dakarren problematika
ikustaraztearekin batera. Hari horretatik tiraka, esku artean
duzun proiektua sortu zuten Baratzakoei, EHAZEekin elkar-
lanean: topaldi digitalean parte hartu zutenei iritzi artikulu
bat idaztera gonbidatu zituzten, modu libre eta sortzailean,
pauta bakarria jarrita: imajinatu gure egoera epe laburrera,
bidente eszenikoak bilakatu gaitezten.

Esku artean duzu, irakurle, gogoetarako izateaz gain, go-
zamenerako izatea ere nahi genukeen artikulu sorta.

HITZAURREA

Eta horregatik

Arantzazu Fernandez Iglesias

2019-2020 denboraldian, Baratza Aretoak Zurrunbilo jaialdia bertan behera utzi behar izan zuenean, profesionalen arteko topaketa birtuala antolatu zuen arte eszenikoetako sektore ezberdinetako eragile eta artistak bilduz. Horrela, 2020ko apirilaren 4an euskal sortzaileen arteko esperientziak zein gogoetak trukatzeko asmoz elkartuta, hainbat lagunek itxialdiari izkin egin nahi izan zioten, arte eszenikoen sorkuntzari, dramaturgiari eta, besteak beste, haien antzezpen estiloei buruz mintzatzeko. Egiari zor, antolatzaileei zein partaideei lerro hauetatik aitortu behar zaie ahalegin berezia egin zutela, batez ere, gaixoaldiak areagotutako prekarietateak elkarrizketen erdigunea guztiz bete ez zezan egin zuten esfortzuagatik. Itxialditik etorkizuna irudikatzea, hori zen erronka.

2016an sortu zenetik, *Zurrunbilo* zikloak pentsatuta dago hainbat lagunen arteko lanen katalizatzaile modukoa izateko. Sentsibiltate ezberdinetako artistak elkartzearen onura baliaturik, komunitatean sentitu eta esperientziak elkarri trukatzeari egin diote aurreko urteetakoek. 2020ko deialdian, berriz, aurrez-aurre ez egonda, nekez truka zitekeen sortzaileentzat hain garrantzitsua den energia elikagarria. Horregatik hain zuzen, behin emanaldiak bertan behera utzita zeudela, eragileen arteko harremana mantentzen nahiz berdinkideekin egoteko gosea asetzen saiatu behar zen ahalik eta indar gehienez. Bileran parte hartzeko deia jasotzearekin batera, *Zurrunbilo*a, une horretan, arte eszenikoetako euskal sortzaileen sarearen haria ez galtzeko katebegia zela ulertu genuen. Isolamendu garaian heldulekua, non partaideak, lehiakideak izan ordez, adiskideak izango ziren. Teatroa komunitatean izan behar dela edo bestela ez dela izaten usteari helduta, teatroa existitzeko harreman sozialetan gauzatu behar delako iritzikoak garelako.

Egun ere (2020ko urrian) zaila da oso, kultur agendak (ia) hustuta daudenean, programazioen emanaldi gehienak bertan behera utzi dizkigutenean, diruaz, prekarizazioaz ez hitz egitea. Jakin badakigu norberaren proiektuen bideragarritasun ekonomikoa praktikaren zentraltasunean dagoela (Erwin Piscatorrek dixit) eta, gainera, ez zaigu ahazten euskaraz sortzeko hautuak ekartzen duen hauskortasuna, kontrara. Ideia hau argi utzi nahi dugu aitzinsolas honen hasieratik: zilegi dugula arteaz jardutean diruaz hitz egitea, ez dezala inork barkamenik eskatu ekonomiaz eta sormenaz aritzen denean, esaterako. Ildo horri lotuz, hitzaurre honi jarraitzen dioten ekarpenen artean kulturarako aurrekontuak zenbatekoak diren irakurtzea duzue, eta arte eszenikoetan inbertsioa zenbatekoa den. Datu horietan Administrazioak hiritar kultura zaleak nahi gaituen ala ez erantzuteko argudioak ditugu. Bestaldetik, maila profesionalean dihardutenean aldarrikapena ez da isilpean gorde behar: intermitente estatusa euskal lurralde osoan indarrean nahi duen iritzia zabaldu behar baita *urbi et orbi*.

«Lirikarentzat garai latzak dira hauek» utzi zuen idatzita Bertolt Brechtek 1939an, baina bistan da 2020. urtean iritzi horren egokitasuna indarrean dagoela. Olerki ezagun horretako ahots poetikoa kexu dabil esanez atsegina, zorionsua dena, publikoaren gustukoa izaten dela eta bidegabekeriak edota itsustasun morala salatzen duena, berriz, ez. Kartelerari begira, antza, egoera ez da gehiegi aldatu antzerkigile alemaniarren garaietatik hona, programatzaileen ausardia faltak –edo sobe-rako koldarkeriak– adierazten duen bezala. Ze antzerki mota programatzen da helduentzat Euskal Herrian? Dramaturgia mailan programazio gehiena guztiz zaharkituta delarik, ikusleak non edo norekin asetzen du bere begirada garaikidea?

Honen ondoren irakurriko dituzuen ekarpenetan oso gutxi erabili du *alternatibo* izenondoa. Hainbatek nahiago

dute *dramaturgia berriak* erabili. Nork bereari eutsita, irakurleak ulertu beharko du antzezpen praktika “kontserbadore” ez direnei buruz hitz egiten dela argitalpen honetan. Alabaina, periferian egote hori ez da bokazionala, taldeak eta sortzaileak hor daude kokatuta Euskal Herriko programazioan ematen diren ezaugarri jakin batzuetatik kanpo geratzen direlako, hala nola, komedia barregarriak oholtzaratzea eta, ahal bada, bakarriketa eta telebistaren bitartez ezagunak diren aktoreekin antzeztuta edota bi hizkuntzetan eskaintzen diren emanaldien alde egiten dutenen aldekoak. Toki gutxi ohi du euskaraz soilik antzeztu eta antzezpen naturalistara edota umore errazera jotzen ez duen sormen lanak. Leku exkaxa dute testutik aldentuta beste adierazpen bideak bilatzen dituzten emanaldi posdramatikoek, esaterako. Herrietako agenda kulturalari begirada bat bota ondoren, begi-bistan geratzen zaigu antzoki publikoen programatzaileek esperimentazio edota berrikuntza garaikide dramatiko bidetik abiatzen dena ze gutxi kontratatzen duten. Beraz, ausartagoa, mintzaira garaikideagokorik gabeko *normalidadea* da gurea, finean, *normalidade* antiartistikoa, non, oro har, antzoki publikoak kudeatzen baitira antzoki pribatuak izango balira bezala. Gauzak horrela, zeinek itzuli nahi du lehengoko “normalidade” horri?

«Izan direlako gara», irakurriko duzue aurrerantzean, eta hala da, bai. Esaldi horren azpian, dena den, galdera bat datza: eta zeintzuk izan ditugu, esplizituki, orain artekoak? Nola-koa izan da gaurko euskal antzerkia elikatu duen lehenagoko antzerkia? Nolako aurrekariak ditu gure gaurko teatroak? Ba al dakigu antzerkilari garaikideek aurrekoengandik zer jaso duten? Eta oraingo euskal antzerkia balekoa da euskal antzerkigile gazteenen jakin-mina asetzeko? Belaunaldi aldaketa etorri zitzaigun trantsizio garaiaren ondoren, antzerki sistema profesionala (bere hauskortasunean) egonkortu

zenetik eta pieza elebidunak gailendu zirenean konpainien lanetan 90. hamarkadatik aurrera. Hurrengo hamarkadaren hasiera aldera, aitzitik, aldaketa zantzu argiak ikusten dira euskal antzerkiaren historiografian. Bi data mugarri ditugu: bata 2008.ean Miren Gaztañagak *Stereo* estreinatu zueneko eta 2010. urtean Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategiak *Errautsak* antzeztu zutenekoa bestea. *Stereo*-k, Judith Butler eta Paul B. Preziadoreen teoria feministak haragitu zituen performancetik gertu zegoen ikuskizunak ikusarazi zigun ezohiko espresio moduek ez zutela publikoa uxatzen. *Errautsak*-ek, *oraingo eta hemen*-go historia mintzagai hartuta, frogatu zuen komediatik urrun geratzen zen ekoizpen kolektibo batek publiko-arrakasta – eta gerorako fideltasuna – lor zezakeela. Bi muntaia horiek baliaturik, euskaraz sortzen den antzerkiaren historian norabide aldaketa sendotuta zegoela adierazi izan dugu behin baino gehiagotan, batetik era experimentalagoak publikoaren gustukoak zirela ikusi genuelako eta, bestetik, frogatzen zuelako tokian tokiko gizartearekin konpromisoa adierazten zuen teatroari egiten zitzaion harrera indartsua. Bien kasuan, komunitatean sorturiko lana, hots, elkarlana zela aldarrikatuta, bien kasuan euskaraz sortuak. Data horietatik aurrera, euskal teatroan belaunaldi aldaketa zein praktiken aniztasuna hedatu da, eta liburu hau horren adibidea dugu. Badugu, beraz, *corpus* nahikorik azken antzerkiaren aniztasunaren sendotasuna aztertzeko eta, goian aurreratu dugun bezala, badugu publiko prestatua, erosotasunetik harago joaten diren antzezlanen zalea dagoeneko. Gauzak horrela, bistan da, programazioen estiloa aberasteko premia gero eta urgentziazkoagoa dela ikusle emantzipatuen (Rancière-k dixit) begiradari heldu nahi diogulako.

Zurrunbilo hitza modu ezberdinetan ahoskatzen dugu, hala nola, *zurrunmilo*, *zurrungil(o)*, *zurrunbuilo*, *zurrunbuilu*,

zurrubillo, zurumilo. Hala ere, esateko molde guztietan esanahi berak dirau, liburu honetan gertatzen den bezala: ez da talde homogeneoa hemen aurkezten dena, norik bere ahotza du nahiz eta, finean, denek bat egiten duten garai digital hauetan teatroaren gertutasuna aldarrikatzeko. Liburu honetako hausnarketak idatzita daude gorputz disidenteetatik, ertzetatik, efimerotasuna aldarrikazetik, tradizioa iraultzetik, lukurreriaren kontrako jarreratik, teatroa sendagai gisa ulertzetik, *normaltasunari* aurre egitetik, antzezlanak errealitatearen ispiluak direlako ustetik, garaikidetasunean nahiko garaikideak ez ote garen pentsazetik. Erak eta manerak diferenteak darabiltzate, «egon bagaude» diotela egileek, euren burua zuzeneko nahi dutela, antzezpena haragizkoa. Ziurgabetasun hilabete hauetan bereziki, zuzeneko arteak, ilusioaren bitartez bada ere, segurtamena eskaintzen digu, heldulekua, non kultura gure bidaidea izan behar dela inoiz baina argiago antzeman dugun, zeren ez baitago antzerkia edota dantza baino egiaiagoa den arte adierazpenik. Eta horregatik, egia eskertzen ditugun garaietan, arte eszenikoen egia, gordintasuna, biluztasuna, fisikotasuna nahiz kuraia inoiz baino gehiago gertu nahi ditugu ikusleok, kultur erresistentzia praktikak zuzen-zuzenean.

Aurreko testuek frogatzen digute gure kultur sistemako manifesturik eza ez dela gaitz endemikoa. Iritziak eta usteak ez dira falta ez eta arloko egoerari egindako salaketak edota kritika zorrotzak ere. Baina, gizalegez zuzenean ohikoa den eran, kritikekin batera sektoreko osasuna hobetzeko proposamen bilduma dago. Publikoak entzun ditzala ahots horiek.

BIDENTEAK GARA

Patricia Urrutia Urieta
Amaia Irazabal Blanco
Iñaki Ziarrusta Hernaez
Itziar Rekalde Luzarraga
Ane Gebara Gonzalez de Axpuru
Gontzal Uribe Cuerno
Marina Suarez Ortiz de Zarate
Horman Poster kolektiboa
Telmo Irureta Uria eta Maite Aizpurua Olaizola
Eneritz Artetxe Aranaz
Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garaialde
Formol Laborategia
Oier Guillan Bermudez

Esperantzara kondenatuak

Patricia Urrutia Urieta

Benetan Be Teatroa

Antzerkiaren izaera kolektiboak erakarri egiten nau. Ikusle eta sortzaileen arteko komunio zehatz eta mistikoa, bestearen esperientzia, inoiz baino beharrezkoagoa iruditzen zait urrunekoaren garaian. Zelanbait, norbanakoa beraren gaitzen eta zorionen arduradun gorentzat jotzen den aro honetan, pasio, ahulezia, makurkeria eta ergelkeriak kolektibo sentitzeak gizarteari osasuna ekartzen diolako kontzimendu irmoa daukat. Bizi dugun aro indibidualizatu honetan, elkarrekin negar eta barre egitearen indar eraldatzailea indar subertsibo bilakatzen da.

Era berean, lantaldean sortzeko prozesuak biziki erakarritzen nau. Elkarrekin eraikitzeak. Bidelagunengan norbere proposamenek oihartzuna dutela igartzeak eta lagunak proposatzen duenak norbere usterik sendoenak kolokan jartzea ikusteak. Berriro ere, bestearen esperientziak (sintonian, distonian edo harmonian) mugiarazten nau gehien.

Eta aipatutako hori guztiori euskaraz egin. Guk ez badugu egiten, beste inork ez duelako egingo. Hemen ez badugu egiten, beste inon ez delako egingo. Euskaraz sortzea ez delako praktikoa. Maitasun-ekintza bat delako.

Orain arte nire proiektuak aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoak izan diren bost baldintza aipatu beharko banitu, lehenbizi, kemena datorkit gogora. Oso hurbiletik, familiak jarraitzen dio. Semea, sorkuntza eta birak bateratu ahal izatea ezinbesteko baldintza da nire kasuan, eta beste askorenean. Maila berean ere lantaldea dago. Euren inplikazioak eta bultzadak berebiziko garrantzia daukate lanerako. Proiektu bakoitza taldearena da, oso era konkretu batean. Gertuko beste profesionalekin prozesua eta bidea partekatzea ere funtsezkoa egiten zait. Eta beste maila batean, baina Top5-ean zalantza barik, egonaldietarako eta diru-laguntzetarako deialdiak daude. Lagundu egin didate ideiak, ametsak, gogoetak zehazten, gauzatzen, errealitatean

jartzen. Eta jaso izan ditudanean, alde batetik, errekonozimendu horrek aurrera egiteko adorea eman dit; eta bestetik, proiektuak baldintza profesionaletan burutzeko aukera eman didate.

Egungo egoera nahasi honen diagnostiko bat egitea zaila egiten zait. Ezjakintasuna da nagusi. Ezinegona. Oso egoera aldakorra izan da eta izaten jarraitzen du. Egia esan, ziklogenesia gainean daukagularik, gaitza egiten zait kalteen inbentarioa egitea. Aldiz, nahiko argi ikusten dut enbata heldu denean jadanik nekatuta, ahulduta, egarriak eta goseak harrapatu gaituela. Baretuko du, beti baretzen du. Bitartean, bideak aurkitu behar ditugu ez hondoratzeko. Eta horretan gaudela, aldi berean, nolabaiteko aurreikuspen bat egin behar dugu gerora olaturik txikienak eraman ez gaitzan. Horretarako, elkarrekin egin behar dugu ahalegina. Nola edo hala, biziraupen hori, antolatu egin behar dugu. Konpainientzat eta sortzaileentzat elkarguneak sustatuta; artiston eta kultur bitartekarien (programatzaile zein kultur teknikarien) arteko topaguneak sustatuta, elkarren lana eta egoeraren berri izateko; eta instituzioei (maila guztietakoei) gure ofizioa zertan datzan ulertarazita (gure errealitatea zein den, zeintzuk gure ogibidearen beharrian espezifikoak). Bestela, legislatzen jarraituko dute guretzat, gure kaltetan.

Egoera berri horren aldakortasuna aipatu dut, eta ostera ere, horretara bueltatu nahi nuke, egunotan zabaldu den *errealitate berria* terminoan arreta jartzeko. Errealitatea beti da berria denontzat, baina sortzaileontzat are modu nabariagoan. *Errealitate berria* terminoari egonkortasun kiratsa dario. Ez dut onartzen. Ez dut onartzen *errealitate berriaren* kontzeptua. Tranpa itzela dela uste dut. Zirrikitu arriskutsua, behin-behineko neurriak behin-betiko neurri bihurtzeko maila guztietan: politikoan, legislatiboan,

ekonomikoan, sozialean... Ezin dugu onartu behin-behineko neurri horiek gelditzeko heldu direnik. Ez dira nahikoak eta ez dira onargarriak. Eta ez daukate zentzurik jaio zireneko markoa jada aldatu delako.

Errealitateabeti da aldakorra, eta orain inoiz baino aldakorra-goia ematen du. Bada, jarraitu dezagun neurriak moldatzen errealitatearekin batera, eta baliatu dezagun aldaketa horien azelerazioa, modu berriak asmatzeko. *Lehenengo errealitate* hark zeuzkan hainbat eta hainbat hutsune eta ahuleziarentzat konponbideak topatzeko.

Izan ere, ditugun egitura ahul horiek dira, maila guztietan –hezkuntzan eta osasunean, kulturaren beste–, kalteen tamaina areagotu dutenak kolpea jaso dugunean. Gu, hain zuzen, konpainia bezala, amildegian laga gaitu. Lehenengo oldarraldiari eutsi ahal izan diogu eta baikor nago (baikor egotea baino ez daukadala ere, jakin badakit). *Esperantza-ra kondenatua*. Talde indartsua eta talentuz betea daukagu, eta aurretik egindako lanari esker sasoian harrapatu gaitu kolpeak. Baina, nahiz eta taldekideok eskarmentu luzeko profesionalak garen, Benetan Be jaioberria da, oso gaztea. Eta iluntzetan, aitortzen dut, benetan eutsiko diogun beldurrrak asaldatzen nau.

Orokorrean, uste dut krisialdi guztietan bezala, jadanik indartsuak ziren konpainiek errazago aurre egin ahalko diotela egoerari, eta azkarrago errekuperatu ahalko direla. Aldi berean, badakit badaudela beste konpainia, artista eta errealitate batzuk guk baino are panorama gorriagoa dutenak. Beraz, berriro ere, gure antzerki-sistemaren biziraupenaren alde indarra elkarrekin egitearen garrantzia azpimarratu nahi nuke. Eta bereziki, euskarazko sortzaileon artean. Hain da zaugarria gure ekosistema. Sasi-darwinismoaren mamu gezurri horrek ez gaitzala itsutu. Ez dute zertan indartsuenek soilik iraun, moldagarrienek baizik. Eta moldatzeko

gaitasun horretan, gu apartak gara. Gogoan izan behar dugu, baina, zer moldatu dezakegun eta zer ez, antzerkiaren izaeraren funtsa bera delako.

Esango nuke, horixe dela nire *begitazio utopiko praktikoa abiatzeko* oinarri nagusia. Eta horren adibide argia kale-antzerkian daukagu. Ezinbestekoa iruditzen zait espazio publikoaren interbentzioa sustatzen duten antzerki formak babestea eta bultzatzea. Kalea ezin da ordenatu. Ezin da lerotan antolatu. Antzerkiak kaleko egunerokotasuna irauli behar du. Ikusleen eta aktoreen arteko mugak hautsi, astindu behar ditu. Badakit behin eta berriro bueltatzen naizela behin-betiko neurrien gaira, baina nire ustez, hortxe dago arriskurik handiena. Uneko larritasunetik irteteko, bai. Besterik ez.

Era berean, antzerkiak zuzenean izan behar du, edo ez izan. Publikoarekin komunio intimoan. Uneko esperientzia kolektiboaren balioa aldarrikatu eta babestu egin behar dugu. Gure gorputzen, garen horren guztiaren, esposizio basatiak merezi du, konpartitua bada. Horretan argiak izan behar dugu. Antzerki telematikoa ez da posible. Maitasun telematikoa posible ez den bezala. Zalantza barik, tresna izugarri baliagarriak eskaintzen dizkigute jadanik horren berria ez diren teknologia berriek, eta baliagarri izan zaizkigu oso, larrialdiaren unerik gorrienean aurrera egiteko. Bai ekonomikoki, aldez aurretik adostutako katxetak kobratu ahal izateko, bai artiston erakusteko eta partekatzeko grinarri irteera emateko, bai lantaldearekin sua bizirik mantentzeko, bai besteen berri izateko. Bada, haria eten ez zedin. Baina gelditu gaitezen gure onurarako erabili ditzakegun *tele-tresnekin*, tranpa nagusian erori gabe.

Utopiatzen jarraituz, balia dezagun egoera etorkizunerako dagozkigun egiturak sendotzeko. Orokorrean, aspaldidanik aldarrikatzen gabiltzan kontuak dira burura etortzen

zaizkidanak, hala nola, gure espezifikotasuna kontuan hartzen duen marko juridikoa onartzea (intermitentzia); bitartekari kulturalak pairatzen duten eta gure kontratazioetan eragin zuzena duen %21eko BEZa murriztea; kulturarako aurrekontuak legez babestea...

Azkenik, gure ogibidearen izaera azaldu eta ulertarazi behar diegu gure errealitatean eragina duten instituzioei (bai udalei bai maila ezberdinetako gobernuei). Beharrezkoa ikusten dut instituzioek ulertzea gure lana ez dela erakusketara mugatzen. Sorkuntza, ikerketa eta hezkuntza ere gure ogibidearen parte direla.

Bada, laburbilduz, balia dezagun hausnarketa garai hau aurretik ahul zeuden egiturak sendotzeko, partxeen tranpan erori gabe; gure ogibidearen berezitasunak ulertarazi ditzagun; eta antzerkiaren indar bateratzailea balioan jar dezagun. Antzerkiaren indar eraldatzailea, astintzailea eta iraultzailea. Eutsiko diogu!

2020ko ekainaren 20a

Amaia Irazabal Blanco

Hemendik 50 urtera, 2070ean, suertez bizirik banago, hau irakurtzean barre egin nahiko nuke besaulki batean lasai-lasai eserita, etxean, jubilatuta, lorategitxo batekin, itsasotik gertu. Eta maiteminduta, mesedez.

Bitartean, ia edozer gerta daiteke. Hau guztia gertatu eta gero edozer imajinatu dezakegu.

Eta, aldi berean, hori guztia, beste modu batekoa izan daiteke (Wittgensteinek ere esan zuen). Ez dakit bosgarren dimentsiotik gauzak nola ikusiko diren. Hemendik, behintzat, irekitzen duzun leihoaren arabera oso desberdin bizi daiteke errealitatea: katastrofe bat, konspirazio bat, planetaren fase berri bat, edo kamera ezkutuko broma bat. Dena dela, lurrak ez gaitu lehen bezain sendo eusten. Hobeto esanda, guk uste bezain sendoa ez dela geratu da agerian.

Pribilegiatua naiz. Antzerki eta deribatuetatik ordaindu ahal izan ditut nire burua pozik eta sano mantentzeko gastuak. Hala ere, ez diot *arteari* nire ekonomia salbatzea exijitzen, ez diot sormenari, beharra eta bizimodu dugun honi, alokairua ordaintzea exijitzen (aldi berean, orain aurrekontu bat eskatzen badidate, nire beharrak eta bestearen boterea neurtuko ditut, tripak konforme sentitzen ditudan arte egokituz).

Posizionatzea kostatzen zait, gauzen erdian gogoratzen dut nire burua. Baina, Amelie Nothombek *Hodien metafisika* zioen bezala, aukeratu egin behar da, uko egin, nonbaiten jarrri begirada, jainkosa izateari utzi.

Nire aukera geldirik geratzea da, mugitzea geldirik egotea baino garestiagoa bada, azkenean, garestiago bazaio planetari.

Agian gehiago borrokatu beharko nuke, baina egokitzea da nire estiloa, beti topatzen duzu zirrikituren bat hankak luzatzeko.

Sortzeko orduan obsesioak eraman nau lekuetara. Asko baliatu izan dut korapilatzen zitzaidan zerbait askatzeko grina,

barrukoa erakusteko bertigoa eta, aldi berean, irrika. Eder-tasuna bilatzea gustatzen zait, sinpletasuna objektuetan eta konplexutasuna ideietan. Musika.

Gertatutakoa *coitus interruptusa* izan da. Betikoa da, orgasmoari begira ari bagara, faena bat da. Baina guk aspaldi utzi genion orgasmoaren zain egoteari, batez ere, gure esku ez dagoen orgasmoaren zain egoteari. Horregatik, akaso, itxialdi honek onerako eragin digula ikusi dut nire inguruan, maila pertsonalean behintzat, eta hori sorkuntzan ere igarri beharko litzateke gero.

Topikoetatik haratago, *orain eta hemen* bizitzea ezinbestekoa suertatzen ari zaigun zerbait da.

Nonbaiten eroso jartzen hasi orduko alde egin behar. Nola kokatu orduan gure burua inon?

Itsasontzi batean, ekaitza datorrenean, harrapatzen zaituen lekuan zutik mantentzea nahikoa lana da, eta ez marea-tzea bestea, arazorik badago konpontzera joan ahal izateko. Badakizu ekaitzaren kontra borrokatzea alferrik dela, ekaitza ez dela etsaia berez, eta ahal bezain ondoen pasatu behar dela.

Horregatik, nire plana eta lana orain “beste zerbait” horretarako prest egotea da, zentzu guztietan, oholtzan katuak izateko eskatzen ziguten bezala.

Entrenatzen joateko, baliagarria iruditzen zait Robert Filliou poeta eta artista frantsesak proposatutakoa: “Egiten duzuna egiten (edo pentsatzen) duzula, egizu (pentsa ezazu) beste zerbait”. Gutxienez, “normalak” ez garenok, azkenean, “normalak” izateko aukera izango dugu normaltasunaren definizio berri definitu gabe honetan.

Etorkizunerako gutxi gehiago. Momentuz bihar lanera noa, hau guztia hasi zenetik lehen aldiz, pozik eta eskertuta.

Lastozko etxea

Iñaki Ziarrusta Hernaez

Atx Teatroa

Izan zirelako gara, garelako izango dira. Gehienontzat argi dago iragan baten ondorioak gabela. Munduaren historian hartu diren erabakien, egin diren akordioen, gertatutako aldaketa soziopolitikoaren, geografiaren, klimatologiaren eta hainbat eragileren emaitza gara. Era berean, gure atzetik datozenak iragan horren gehi egungo garapenaren emaitza izango dira, ezinbestez.

Horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, gure patua idatzita dagoenik, ezta aldatu ezin dezakegunik ere. Baina ezinbestekoa jotzen dut nondik gatozen eta gauden egoeran zergatik gauden ulertzea.

Hurrengo lerroetan antzerkiaren sektorea nola dagoen aztertzen saiatuko naiz, zergatik eta zer egin beharko genukeen etorkizun osasuntsu baten bidean martxan jartzen hasteko.

Oso tasun handi baten emaitza garen heinean, ezin izango dut parametro globalagoak aztertu gabe nire analisisa burutu, horregatik hainbatetan, “kultura” orokorrean, “euskal mundua”, edota “garapen sozioekonomikoa” bezalako kontuak hartuko ditut hizpide.

Irudi bat hamaika hitz baino esanguratsua dela esan ohi da. Kasu honetan, nire esperientzia pertsonaletik ateratako hainbat adibide eta konparaketa egingo ditut. Espero dut adibide horiek zuentzat ere niretzat izan diren bezain adierazgarriak izatea.

Gizaki kulturala

Jokoa proposatzen dizuet: galdetu zure inguruko lagun, senide edo gertukoei ea kultura zer den, zertarako balio duen eta hura existitzea garrantzitsua den ala ez.

Oso oker ez banabil, mota guztietako erantzunak topatuko dituzu, oso nahasiak, asko eta asko topikoz beteta, edota zalantza ugarirekin. Erantzun guztiak kontzeptu komun batean laburbiltzeak lanak ekarriko dizkizu.

Eta orain egin galdera berdina osasunarekin, edo hezkuntzarekin. Segur aski kasu hauetan emandako erantzunek antzekotasun handiak edukiko dituzte eta errazagoa izango zaizu kontzeptu komun bat ateratzea.

Argi dago historiaren momenturen batean kultura bere jatorrizko funtzioa galtzen joan dela eta gaur egun iparra galduta gabiltzala erabat; baina noiz?, nola?, zergatik?... Aurrrerago saiaturko naiz galdera horiei erantzuten. Momentuz, itzul gaitezen gizakiaren eta kulturaren arteko lotura historiko horretara.

Gizakiak, gizakia denetik hona, kulturaren beharrezana sentitu du. Gizatalde moduan hurrengo belaunaldiei jakintza transmititzeko modu bat izan da, gure adimena iristen ez zen lekura balizko interpretazioak emateko, tradizioak gordetzen ikasteko, azkenean ere, nondik gatozen, zer garen eta nora joan gaitezkeen kontatzeko eta horrela gure hartu emanak sendotzeko.

Gure irudimenak kode batzuk sortzen ditu eta gizataldean elkarbanatzen ditugu. Kode horien bitartez, gizatalde baten parte bihurtzen gara. Eta taldeak konpartitzen duen ezaugarri, ohitura, sinesmen eta jakinduria batetik ikusten dugu mundua, eta bertan kokatzen gara. Ez dira finkoak eta aldaezinak, ezta gutxiagorik ere. Eztabaidatu ditzakegu, onartu, baztertu, aldatu, berriak sortu, zaharrak berrinterpretatu, eta abar.

Jar dezagun martxan gure imajinazioa. Demagun gazte bat, hamabi urtekoa. Sekula ez du ipuinik edota musikarik entzun, ikusi dituen eskultura bakarrak naturak berak zizelkatutakoak izan dira beti. Antzerkia ez da existitzen. Ezta margolanik ere. Bere guraso eta senideengatik jaso duen heziketa bizirauteko baino ez da izan. Istoriorik ez, kontakizunik ez, anekdotarik ez. Dantzarik ez da inon, noski. Telebista, irratia, zinea, liburuak ez dira asmatu.

Distopia horretan bizi den gazteak erreminta bakar bat edukiko du bere bizitzaren hainbat momenturi aurre egiteko: bere irudimena. Besterik ez. Eta ez badu erabiltzen, ez du jakingo bere maitasuna adierazten, edo bere gorrotoa. Ez du jakingo senide bat hiltzean nola agurtu, ez du jakingo bere barrua nola hustu. Ezin izango ditu jakin zenbat modu desberdin dauden “maite zaitut” edo “minduta nago” esateko.

Ez dauka inolako koderik, ez da inongo gizatalderen parte. Izakia da, bai, baina ez gizakia.

Kultura erabat iragazkorra da eta historiaren hainbat momentutan bere erabilera eta forma ere aldatuz joan da, sasoi diferenteetara egokitzen.

Aldaketa horiek burutu arren, kulturak funtzio bera betetzen jarraitu du:

- Jakintzaren transmisio-tresna
- Pentsamendu kritiko eta autokritikoa sortu
- Gizatalde baten sarea sortu eta indartu
- Norbera munduan kokatzeko baliabideak eman
- Bizitzako gertakarien aurrean jarduteko era posibleak irudikatu
- Gure gertuko errealitatetik mundua ikusteko moduak eman
- Gizatalde bateko hausnarketa eta eztabaida sortzeko aitzakiak mahai gainean jarri
- Existitzen ez diren balizko munduak imajinatzeko parada eman

Hauexek dira kulturaren benetako balioak eta funtzioak, horretarako balio du kulturak.

Izaera zentrifugoa daukan beste edozein herri ekimen bezala, gizartearen eraldatzeko tresnarik indartsuena eta eraginkorrena da, dudarik gabe.

Baina lehen ikusi dugu ideia hauek gaur egun ez daudela oso argi, nahaste-borraste handia dago, bai kontzeptuan, bai funtzioan, baita bere balioan ere.

Zergatik? Zer gertatu da?

Saiatuko naiz kalkulatzeko noiz hasi zen dena pikutara joaten.

Trokatik behera

Ez dut Historian oso atzera joan nahi, batez ere ez asper-tzeko, baina nik esango nuke Errenazimenduaren inguruan kokatu daitekeela ipar-galtze honen hasiera.

Harira.

Sasoi horretan gutxi gora behera hasi zen diruarekiko kontratuak egiten, lukurreria, banketxeak, burgesiaren hasiera eta, berez, gaur egun kapitalismotzat ezagutzen dugun sistemaren hazia.

Batzuek esango didate Berpizkundean arteek babes ekonomiko handia eduki zutela. Bai, horrela izan zen. Baina ez zen izan orduko agintari eta diruzaleei artea asko interesatzen zitzaielako, baizik eta lukurreria bekatua zelako, eta bekatu larria gainera. Diru-gosetientzat, ordea, bazegoen irtenbidea. Elizak bekatu horren larritasuna arintzen zuen, baldin eta diruaren zati bat kulturen inbertitzen bazen. Hor-txe dago arrazoia, eta ez arteekiko maitasunean.

Geroxeago beste sasoi garrantzitsu batzuk ere etorri ziren, industrializazioa, komunismoa vs kapitalismoa, Gerra Hotza, Alemania zatitzen zuen harresiaren desagerpena, globalizazioa, teknologia berrien eztanda... Horietako bakoitzak, bere sasoiaren eta bere neurrian, gaur egun ia mundu osoan ezarrita dagoen sistema sozioekonomikoa garatzeko ekarpena egin zuen.

Prozesu luzea izan da, ez da egun batetik bestera gertatu; baina orokorrean ideia batzuk gailendu ziren, hain zuzen ere

sistema sozioekonomiko horri laguntzen ziotenak, eta beste batzuk, aldiz, indarra galtzen joan dira.

Nagusitu den ildoak hauxe da: jarduera orok etekin ekonomikoak ekarri behar du, are gehiago sektore baten moduan sailkatu nahi badugu. Eta ez edozein etekin tamaina, ez. Barne Produktu Gordinaren ehuneko garrantzitsu bat.

Baieztapen horretan badaude salbuespenak, gizartearentzako ekonomikoak ez diren onurak ekartzen dituzten jarduerak, esate baterako: osasuna (ez herrialde guztietan), garraiobideak, azpiegituren eraikuntza edo hobekuntza, hezkuntza...

Gure agintariek gastatutako diru guztiak gizartearen aurrean zuritu behar dituzte, edo behizat beharko lituzkete. Partida ekonomiko batzuk erraz justifikatzen dira, ekonomiar dagokionez, herriaren traktorea direlako, beste batzuk ongizate zuzena sortzen dutelako, baina beste batzuk... Ai ama...!, ez da horren erraza.

Kulturak pertsona moduan aberasten gaituzten gaiak sortzen ditu, psikologikoki, filosofikoki eta emozionalki elikatzen gaituztenak, eta kontzeptu horiek ez dira ideia pragmatikoagoak azaltzeko edo zurrizko bezain errazak. Hau da, gobernuak autobusetan inbertitzen badu, gizarteak zerbitzu publiko hori erabiliko du bidaiatzeko, hauxe izango litzateke inbertsio horren emaitza, kuantifikatu daiteke arazorik gabe eta oso erraza izango da jakitea zerbitzu horrek on egiten digun edo ez. Baina gobernuak kulturaren inbertitzen badu, etorriko diren emaitzak forma anitzekin etor daitezke: ideia politiko moduan, enpresa batek proposatutako hartu-eman iraultzaileen moduan, etorkizuneko begiradak bezala, proiektu eta ideia berritzaile moduan, gizartearen parte-hartze aktiboago bezala eta abar... Beste askoren artean, horiexek dira kulturaren haziak sortuko dituen zuhaitz eta kimu berrien formak.

Ezin da zenbatu, ezin da estatistika batean jarri, ezin da kuantifikatu...

Kulturaren erabilera

Gauzak horrela, mundu osoko agintari gehienek joera antzekoa izan da; kulturak ez badu etekin ekonomiko nahikorik sortzen, eta, gainera, gizartearengan daukan onura justifikatzea zaila bada..., makillatu egingo dugu.

Hau da, turismo geruza bat eman diote, begietan gastronomia kolore paleta erabili dute eta ezpainak folklore barrarekin margotu dituzte. Makillajeak guztia sinplifikatzen du. Orokorrean, esan genezake kultura publikoa erakartzeko erabiltzen dela, publiko horrek bide batez gastu ekonomikoa egin dezan. Horrexegatik, hain zuzen ere, gure agintariak makro-proiektu kulturalak dituzte gustukoak, oihartzun handiena ematen dutenak. Askotan kanpoko bisitariarentzat diseinatutakoak.

Amua da, arrain freskoa gure sareetan eror dadin.

Modu honetara, errazagoa da kulturaren inbertitzen den dirua zurtzea. Publiko horrek dirua gastatu duelako gure herrian, edota oso masiboa izan delako.

Pentsamolde horrek arriskua dauka: ez dira oinarria zaintzen duten epe luzerako kultur politikak sortzen. Guztia dira su-artifizialak, une bateko eztanda ederrak, bolbora usaina baino uzten ez dutenak, eta gero... isiltasuna.

Gure herrian kulturaz berba egiten denean, euskara, gastronomia, kirola, tradizioak, herri moduan daukagun izaera eta abarrekoak gorai patzen dira. Eta duda barik, badira mendeetan zehar gure lanak eta gure bizirauteko beharriaz bultzatuta erroto diren identitate azarnak. Baina haiek guztiak produktoreak ginelako sortu dira, eta gaur egun, aldiz, kontsumitzaileak gara.

Ezin dugu bizitza osoa errenta zoragarri haieetatik bizi. Ez baditugu berriak sortzen, gure kulturak iraungitzeko data edukiko du.

Kulturaren aurkako okerkeriak

Hainbat adibide topatu ahal ditugu. Telebistan, esaterako, salbuespenak salbu, beste herrialdetan arrakasta handiko formatuak kopiatu egiten dira, kanpoko kulturetan oinarritutako produktuak, entretenimendu merkekoak askotan. Nola da posible ETBlen orain dela hamar urteko programa baten errepikapenak gaur egungoa balitz bezala emititzea? Nola da posible herri batean umeentzako egiten den antzerki programazio guztia euskaraz izatea, eta helduentzako dena erdaraz? Zein politika kultural mota da hori? Zertan oinarritzen dira horrelako programazioak egiteko?

Izugarrria da Hegoaldean futbolak daukan indarra. Ume txiki-txikiak garenetik zenbat zaintzen den futbola leku guztietan egon dadin, zenbat futbol talde, zenbat lehiaketa, zenbat erraztasun... Eta kultura eta sorkuntza?

Nola da posible Euskal Herriko eskultoreak eta margolariak haien artelanak erakusteko zirkuitu duin eta zabal bat ez edukitzea eta haientzat zuzendutako diru-laguntzak eskasak izatea eta, aldi berean, Bilbon goi mailako punta-puntako arte garaikidearen museo ikaragarria egotea? Hau ez al da etxea teilatutik hastea? Ez ote da kulturaz mozorrotutako ekimen turistiko hutsa?

Nola da posible Dantzertik (Dantza eta Arte Dramatikoko Euskadiko Goi Mailako eskola) lokal propiorik ez edukitzea? Eta irakasleak euskal hiztunak ez izatea? Edo are okerragoa... nola da posible irakasleren batek ikasleak animatzea lan bila Madrilerara joatea, argudiatuz Euskal Herrian antzerkia euskaraz egin nahi izatekotan, taberna zerbitzari izatea baino ez dutela lortuko?

Nola da posible Euskal Herriko kultura-programatzaileak konpainien ikuskizunen prezioarekin tratua egin nahi izatea eta Coca-Cola enpresakoekin ez?

Nola da posible Ondarroa bezalako herri batek antzokirik ez edukitzea?

Nola da posible 38 urte dituen eta euskara hutsean egiten den Euskal Herriko antzerki jaialdi bakarra Eusko Jaurlaritzako laguntzarik ez jasotzea?

Nola da posible eguraldia iragartzeko momentuan mugen gainetik herrialde izaera hain asumituta edukitzea eta kultura kontuetan hain gutxi?

Nola da posible SAREAn (Euskadiko Antzoki Sarea) 63 antzoki egotea eta hainbatetan euskarazko programaziorik ez egotea? Edo diru nahikorik ez edukitzea ganorazko programazioak egiteko? Edo datu estatistikoetan 41 bakarrik agertzea?

Nola da posible Kultur Sustapenerako buruak esatea haien helbururik garrantzitsuena internazionalizazioa dela, gure herrialdeko erakusleihoaren sistema hankaz gora dagoenean?

Artikulu hau mota honetako galdera sorta luze batekin soilik osotu nezakeen. Baina galderak pausatzeaz gain, proposamenak ere egin behar dira.

Antzerkiaz

Logikoa den moduan *peineta* ikusi zait, hau da, atzeman zait antzerkitik hitz egiten dudala beste edozein arte motatik baino gehiago. Noski eta, egia esateko, kulturarentzat bere osotasunean ez dut planteamendurik.

Baina antzerkiarentzat bai, akaso proposamen bat edo beste kulturaren departamentu guztietara hedatu daiteke, baina orokorrean antzerkiaz arituko naiz.

2019an hauxe izan zen kulturako aurrekontua Euskadin: 259.937.453,00 €.

Funtzionamendua	%1,55
Kirola	%3,28
Kultura Sustapena	%12,35
Ondare Kulturala	%8,75
Politika Linguistikoa	%21,83
EiTB	%52,23

Zenbaki hauetako batzuk beldurra sortzen dizkirate, batez ere EITBkoak (baina honek beste idatzi baterako utzi behar-ko nuke, hemengoan ez zait-eta sartzen).

Kultura Sustapenerako aurrekontua 32.110.882 €-koa da.

Horrek esan nahi du Gobernuak biztanle bakoitzeko gutxi gorabehera 14 € gastatzen duela. Kontuan hartu behar dugu 14 € hauetan arte eszeniko guztiak biltzen direla, hau da, aretoko zein kaleko musika, dantza, zirkua eta antzerkia, zinemagintza, ikus-entzunezkoak, literatura eta arte plastikoak.

Egia esateko, ni ez naiz ekonomista, ezta nahi ere; baina nik egindako ikerketen arabera, beste herrialde batzuekin konparatuta, nahiko urrun gabilta. Espainiarekin eta Frantziarekin, esaterako, biztanleko 10 € gutxiago gastatzen dugu Kultura Sustapenean. Edozelan ere, argi dago zerbitzu batek ondo funtzionatzeko dirua behar dela. Ez hori bakarrik, baina hori ere bai.

Bost zutabeak

Hurrengo lerroetan proposatuko ditudan egin beharrekoak, nire ustez, ezinbestekoak dira, eta noski, gure sektoreko ohiko aldarrikapenak ere –diru-laguntzak, sorguneak, marko juridikoak, hitzarmen kolektiboak eta abar...– gehitu behar dira derrigor, baina euskara hutsean sortzen dugun konpainiak garen neurrian, eta gure asmo bakarra gure herrialdean, gure herritarrentzat eta gure hizkuntzan aritzea baino ez denean, ohiko aldarrikapen horiek txatalak baino

ez lirateke izango, oinarri sendoa sortzen ez badugu behintzat. Eta horixe da nire asmoa, oinarri sendo bat sortu, behar diren aldarrikapen guztiek heldulekua eduki dezaten.

Gure jarduera burutzeko merkatua ez da oso handia: diaspora albo batera utzita, Lanestosatik Barkoxera eta Samartzetik Cortesera. Horren txikia izanik oso garrantzitsua da ahalik eta leku gehienetan aritu ahal izatea.

Euskadi-Nafarroa-Aquitania euroeskualdea bezalako lurralde egitura bat behar dugu, non euskal hiztun guztietaraino ailegatu gaitezkeen. Hau da, kulturarako mugarik ez egotea, Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) batzea (dagoeneko existitzen da).

Antzoki Sare erreala. Orain arte Eusko Jaurlaritzak ez die antzokiei inolako parametrarik jarri. Bakoitzak ahal duena eta uste duen moduan egiten du. Antzoki batek nahiko diru eduki behar du 52 astez, astean hirutan gutxienez zerbait programatuta edukitzeko. (Gaur egun Sare hori existitzen da, baina hobetu behar da bere funtzionamendua).

Euskarazko kultur programazioak lehenestea, umeentzako soilik ez, helduentzako ere bai. EAEko biztanleriaren %55 inguru da euskalduna, beraz, hizkuntzari dagokionez, programazioak herri bakoitzaren euskara gaitasun indizeari kasu egin beharko lioke, eta ez kultura teknikariak daukan usteari edo inertziari.

Batzarrak egin behar dira Euskal Herriko indar politiko guztiekin banan-banan, kulturarekiko daukaten ideia deformatua baztertzeko eta benetako balio eta funtzioak mahai gainean jartzeko. Azken finean haiek dira erabakiak hartzen dituztenak eta haien erabaki horiek eragin zuzena dute biztanle guztiongan.

Kulturarekin norabide okerreko horrenbeste urte dira, non politikariek ez ezik, gizarte osoak ere iparra galduta duen gai honekiko. Ezinbestekoa da komunikabide indartsuen

bitartez epe luzeko publizitate kanpaina egitea. Baina ez edonolakoa, lehentasunezko maiztasun eta ordutegietan egin behar da. Adibide on bezala hartu daiteke Euskadiren Uraren Euskal Agentziarekin egiten ari dena, masiboa, pedagogikoa, epe luzekoa eta komunikabideen lehentasunezko tartetean.

Laburbilduz:

1. Euroeskualdea
2. Euskararen kuota
3. Antzokien sarea
4. Euskal Herriko indar politikoekin batzarrak
5. Publizitate kanpaina

Hori guztia horrela izateko, ezinbestekoa da behar den dirua eta baliabideak inbertitzea, eta noski, horren guztiaren gainean behar diren beste beharrizanak eraiki.

Ez zaigu guri diruak nola banatu behar diren erabakitzea suertatzen, baina gure ardura da gure sektoreko beharrizanak identifikatzea, aztertzea eta jakinaraztea.

Gure aurretik etorri ziren antzerki konpainiek eta orokorrean kultur eragile guztiek lan izugarria egin zuten gauden egoeran egon ahal izateko.

Guri tokatzen zaigu datozen hamarkadetan lan horri jarraipena ematea.

Egia bihurtu daitekeen ametsa, ezina ekinez egina, gure interes pertsonalak bigarren planoan utzi eta kulturaren interesengatik lan egitea.

Gure atzetik datozenek ogibide hau duintasunez egin ahal izatea merezi dute.

Euskal Herrian kulturaren euskaraz jardutea ez dadila berriro ere oztopoa izan.

Bilbo, 2020ko ekainaren 20a

Igarlearena egiten

Itziar Rekalde Luzarraga

Hainbat gaitasunen artean, Chuang Tzu filosofoa oso trebea zen marrazten. Horregatik, enperadoreak karramarro bat margotzea eskatu zion. Chuang Tzuk bost urte, etxe bat eta hamabi zerbitzari behar zituela esan zion, eta enperadoreak eman ere. Hitzartutako bost urte haiek igarota, Tzuk oraindik beste horrenbeste beharko zuela esan zion, prestatzen ari zela, oraindik marrazkia hasi gabe zuela eta, bigarrenez ere, enperadoreak onartu zuen. Hamar urte igaro ostean, Chuang Tzuk pintzela hartu eta mugimendu bakar batez karramarro bat marraztu zuen, inoiz inon ikusi zitekeen karramarrorik perfektuena.

Neure irudimena martxan jarrita, sormen lanetarako beharko nukeen etorkizun perfektu batean, denbora eskatuko nukeela pentsatu dut. Chuang Tzuk inbidia sortarazi dit. Neure burua imajinatu dut, lehendakarizatit edo kultura sailetik, berdin dio, jarritako etxe batean, Kantauri itsasoari begira, patxadaz, hurrengo lanari buruzko hausnarketak egiten, zabal. Ez nituzke hamabi zerbitzari eskatuko. Gizarte segurantza, langabeziarako zein pentsiorako kotizazioak eta zergetatik salbuetsitako diru laguntza duin batekin konformatuko nintzateke.

Baina, horren truke, karramarrorik perfektuena egin beharko nuke azken momentuan, eta nork ziurtatzen dit hori egiteko gaitasuna izango nukeenik? Orokorrean, ahalmen hori izanda ere, garaia heldu orduko, zenitera, gailurrera nire artea eraman beharko nuenean, presioagatik edo dena delakoagatik ergelkeria bat egingo banu? Ez, ez nintzateke lasai egongo. Ez naiz horrenbesteraino nire ahalmenaz fio. Aldiz, lehen momentutik urduri egongo nintzateke, karramarroei buruzko xehetasun guztiak batzen, dena delako Administrazio sailak jarritako nire etxe aurreko haitzetan mimetizatua, beren ohiturak, erritmoak, bizimoduak, liskarrak zein elkartasun uneak ikasiko nituzke eurekin bat egin arte. Gero,

ezkutuan, marrazketa praktikak egingo nituzke jo ta ke. Era guztiko karramarroak irudikatuko nituzke marrazki klandestinoetan, baina hain obsesionatuta egongo nintzatekeenez, ez nuke batere ontzat hartuko eta depresioak edo estresak jota, uko egingo nioke etxeari, baldintzei eta diru-laguntzari. Ez dakit nola egiten zuen Chuan Tzuk azken momentura arte lasai egoteko. Nik ez dut sormenerako laguntzarik eskatzen, hemen ez dugulako horrelako enperadorerik, eskaintza eta eskariaren arteko desoreka nabarmena dagoelako, oinarrizko beharrak estaltzeko saririk ez dagoelako ziurtatua, baina, batere ere, ez dudalako trukean karramarrorik marraztu nahi. Ez dut nire bizitza, nire errealitateari buruzko ikuspegia murriztuko, nire hurbileko komunitateari uko egingo karramarro batengatik, ederrena bada ere.

Igarleak izateko ahalmena omen dugu, eta etorkizuna irudika dezagun eskatu digute. Baina datorrena asmatzeko, edo gutxienez etorkizun egoki batera iristeko, hartu beharreko bidea antolatzen, nondik gatozen eta orain arteko egoera zein den jakiten, gerokoa baino lehenago ezagutu beharko genuke.

Gaur bertan, idazten nagoen une honetan, hutsarte batean gaude sartuta; tarte eskasa dugu atzean geratu dena perspektibaz ikusteko, edo bizitzen ari garenaz kontziente izateko. Nahikoa da, ordea, noraezean egoteak sortzen digun desoreka eta inertzien indarra sumatzeko. Egoera aldatu zaigu bat-batean, baina askok ez dugu geldieran aritzeko, atzera begiratzeko edo egonean egoteko kemenik. Inertziak ematen digun lasaitasunean, itsu-itsuan jarraitzeko tentazioa eta arriskua daukagu.

Hala eta guztiz ere, gero eta merkantilistagoa den eta bere gaitasun eraldatzailea ia galduta duen kultura batetik gatzela nabaria da. Abiadura eta produkzioa nagusitu dira gu-rean ere.

Abiadura dela eta, Australiako kakalardo-tigrea animaliarik azkarrena zela uste zuten biologoek, *Paratarsotomus macropalpis* arkakusoa aurkitu zuten arte. Kakalardo horrek 1,80 luzera duen pertsona batekin konparatuko bage-nu, 810 km/orduko abiadura lortzeko gaitasuna luke. Baina ibilera izugarri horretan ez ditu behar bezainbesteko fotoiak jasotzen begietan, eta itsu dabil. Etengabe gelditu behar da norabidea ez galtzeko. Nik ere fotoiak dantzan izaten ditut sormen prozesuetan eta agerraldietako lasterketetan. Non nagoenaren kontzientzia galtzen dut eta ez dut uste bakarra naizenik.

Oraingo etenaldiak etxeko lanak egin barik harrapatu gaitu. Hurrengo urratsaren zorabioan besterik gabe sartu aurretik, egin dezagun igarle ariketa, baina etorkizuna asmatu beharrenean, gera gaitezen unean-unekoan: berrabiarazi eta eguneratu dezagun sistema, aldatu baliorik gabe geratu diren estrukturak, sor ditzagun berriak, izan gaitezen geure ibilbidearen arduradunak eta gizartearen birmoldatze prozesuaren eragileak, har dezagun dagokigun protagonismoa oinarrizko beste sektoreekin batera. Praktika dezagun gertuko kultura egile eta hartzaile modura. Eta orduan bai irudika dezaket nire ibilbidea, denbora, egitura zein abiadura ezberdineko arte proiektuetan murgilduta, eremu zabaleko bidelagun anitzekin batera, ahaztu gabe kakalardo tigrea bezala geldiuneak behar ditugula tarteka, non gauden jakin eta norabidea ez galtzeko.

«Ezinezkoa zaio itsasoa irudikatzea putzuan dagoen igelari». (Chuang Tzu)¹

1 Zhuangzi, Zhuang Zi edo Chuang Tzu, K.a. IV. mendea, filosofo txinatarra. Ekialdeko pentsalari trebeenetakoa eta Lao Tseren jarraitzailea.

Ja edo baiezkoen mundua

Ane Gebara Gonzalez de Axpuru

Erabakia birala, mundiala egin zen aste batean. Zazpi egun izan genituen bai edo ez erabakitzeko. Bai. Ez. Bai edo ez, hori besterik ez zen erabaki behar. *Pixka bat, agian, akaso edo baina kondiziorik gabeko erantzunik gabe. Bai edo ez.*

Bai esan genuenean, mila gauzari esan genion ezetz, baina erantzuna Bai izan zen. Orain gaudenak bai horri esker gaude. Geroztik Bai hitza ez da gehiago erabiltzen. Orain afirmaziorako ja hitza erabiltzen dugu, barretik gertu dagoelako, horregatik bai, ja esaten da orain eta bai bai, ja ja. Nahiz eta barrea gurtzen dugun, negarra ere miresten eta askatzen dugu. Gaurik gabeko eguna ez baita eguna. Oso filosofikoak gara hemen.

Hemen bizi garenetik gure ondasun bakarra gu eta ingurua gara, zaintza da gure erdigunea. Zaintza. Ez lana! Oraindik bai esan ez duzuenentzat da gehienbat apunte hau. Hori izan zen erabaki polit eta bakarra, zaintza. Erabakia hartu genuenetik elkar zaintzen dugu, hori da eginkizun bakarra gure bizitzetan, denok zaindu eta zainduak gara eta hori horrela denean presak, denborak, eginbeharrak, inbidia, konparaketak... desegiten dira. Elkar zaintzan hitz egin, elkar ukitu eta minak sendatzen ditugulako. Denok dugu zainduak izateko eta zaintzeko tarte eta horrela dena sendatzen da, gosea eta mina.

Kostatu omen zitzaigun hainbeste miseria, presa, behar, *postureo* eta ustezko helburu beteezin horietatik guztietatik haratago begiratu eta besarkada hori aurkitzea. Besarkada hori da gaur jainkosa itxuratik gertuen daukaguna, besarkada. Besarkada bat une bateko etxe txikia da. Besarkada, laz-tana, mimoa eta «maite zaitut» edo «inporta didazu» esatea bezalako da. Besarkadak arimaren gosea asetzen du, besarkadak bete egiten gaitu. Hori ulertu genuenean nola ukatu aspaldiko Bai hori, Ja!

Hemen jaiotzen garenak, erabakia baino geroagoko garaie-tan, hamasei urterekin ezezkoen mundura goaz bisitan. Han ezezkoen bizitza ezagutu eta beraien artean mugitzen gara as-tebetez. Gero, urtebetez luzatzen da aukera ezezkoen mundu-ra pasatzeko. Hori bai, itzulerarik gabeko bidaia da hori. Han eraikinak antzekoak dira, handiagoak eta giltzaz itxita dauden ate gehiagorekin, dena azkarrago doa eta jateko askoz gauza gehiago daude. Oso pertsona gutxik egiten dute aldaketa. Nire egonaldian lehen baiezkoen munduan bizi zen pertsona bat ikusi nuen. Berak ez ninduen ni ikusi, buruan gauza gehiegi zituela zirudien, ez dakit nora baina barrura begira zegoela zi-rudien, edo agian begietan agenda digital horietako bat izango zuen. Agenda horiekin begiak ezerezean gelditzen zaizkie, auskalo, agenda horiek pasada bat dira. Hemen ez ditugu era-biltzen, ez ditugulako hainbeste gauza egiteko, besarkadak bakarrik ateratzen zaizkigu normalean.

Ezezkoen mundutik urtean bitan egiten dituzte bisitak, ez dira asko geratzen. Baina udalekuetan, beraiek dioten bezala, barre asko egiten dute. Hasieran kostatzen zaie besarkadak ematea baina laster ohitzen dira. Guk lasai agurtzen ditugu alde egiten dutenean, beraiek begiak gorritu eta pena modu-ko sentsazio fuerte bat sentitzen dutenean. Agurrak ere ez dituzte oso ondo eramaten.

Beraiek familia dute, gu familia gara. Noski, pertsona batzuekin denbora gehiago pasatzen dugu besteekin baino; hala ere familia gara. Bisitari batzuek asko maite dute beren familia baina beraiengatik egiten zuten hainbeste negar, gai-nera ez omen zuten denbora asko beraiekin pasatzen. Gauza hauek ulertzeko zailak dira, hemen jaio garenontzat behin-tzat. Esaten dute familia aukeratu ere egiten dela, baina au-keraketa guztiek ekartzen dute bazterketa bat berekin. Guk ez dugu familia aukeratzen, gu familian gaude. Arraroa da ezezkoen mundua.

Kondairek diote ezezkoen konkistatzeko grina itzuliko dela, beraien bizimodua zabaldu nahi dutela, presa gure lurraldeetara ekarri nahi dutela lan egiteko. Oraindik ez dut ondo ulertzen lana zer den. Nik ez dut lanik egiten, lurra, animaliak, pertsonak ingurua eta nire burua zaintzen ditut, horretan dihardut.

Pena mundua bitan banatu behar izan genuela. *Baiezkoen* eta *ezezkoen* artean amildegi bat dago. Lehenengo teknologia eta imanen bidez banatu genuen lurra, arazorik ez egoteko. Batzuk besteen erabakiak onartuko ez genituela esaten dute nagusiek. Geroztik alde bakoitza inguratzen duen amildegi izugarria dago. Grabitatea aldatu denez, harriak eramaten ditugu poltsiko handietan sartuta eta batzuetan jendea espaziora doa noraezean harriak ahaztu edo norbaitek kendu dizkiolako. Zuhaitzetatik eta teilatuetatik sokak daude baina inbentoak ez du beti funtzionatzen. Batzuk nahi dutelako ahazten dituzte harriak, haratago zer egongo denaren jakinmina, lurreko segurtasuna baino handiagoa delako. Izarrak eta Ilargiak misterioa izaten jarraitzen dute. Ez dakit *ezezkoen* munduan baina hemen orduak ematen ditugu izarrei begira ezer ulertu gabe. Batzuetan hegan joan den jendea ikusten dugu izarrekin batera dantzan. Nagusiek diote grabitateak gure kezka handienak eramán zituela, agian grabitateak eskaintzen digun mugimendu organikoa dela, eta lasaiago bizi garela.

Niri oraingoz harriak bakarrik etxean ahaztu zaizkit, eta sabaiarekin topo egin eta etxeko eskailerekin harriak hartzea lortu dut. Oraingoz hemen geldituko naiz.

Etortzen zarenean gauza gehiago kontatuko dizkizut.

Laster arte!

Eszenatokia ispilu

Gontzal Uribe Cuerno

*Behin antzoki batean sute bat piztu zen hegalen artean. Pailazo bat eszenaurrera atera zen publikoa ohartaraztera, baina publikoak, txantxa bat zela pentsatuz, txalo egiten hasi zen. Pailazoak errepi-
katzen zuen berria eta jendeak txalotze handiago batekin jasotzen zuen hitz egiten zuen bakoitzean. Horrela uste dut amaituko dela mundua, gizartearen txaloldi orokortu batekin, dena txiste bat baino ez delakoan.*

Diapsalmata (1843) – Sören Kierkegaard

Eszenatokia ispilu bat da. Publikoa bere errealitatetik abiatuko da beti jasotakoa sentitzeko. Bere errealitatearekiko harremanean hunkitu eta ulertuko du jasotakoa. Zein da egungo gure errealitatea? Geure bizitzetaz jabetzeko gero eta ezinduagoak, teknologia berriekiko gero eta menpekokoak, atzoko eta gaurko krisiak bata bestearen gainean piltzen zaizkigularik, informazio gaindosiaren baitan bizitzera behartuta gauden bitartean, jakin gabe hondamendiaren zein kapitulutan bizi garen.

Munduaren amaieraren ikuskizunera ohituta gaude, urteetan zehar haren milaka irudiekin bonbardatu dituzte gure buruak. *Distopia*, XX. mendearen hasieran kritika soziala plazaratzeko genero literarioa zena, bazkalorduko telesail kostunbrista eta hutsala bilakatu da. Bat-batean, testuinguru horren baitan, alarma egoera heldu da. Errealitate gordina estaltzen zuen ikuskizunez jositako kortseak ez-tanda egin du, geure gizarte ereduaren kontraesan gehienak azalaraziz.

Neuk honela ulertu dut gertatutakoa: koktelera batean bizi izan dugu egun hauetan geure bizimoduaren miseria guttien gaindositia: adituaren agindua, agintariaren diskurtsoa,

poliziaren begirada, teknologiaren baldintzapena eta komunitatearen ukapena. *Molotov koktel* hau jaurti eta su eman diote orain-ari. Sutea zabaldu da ezagutzen dugun gauza oro kutsatu arte. Iraganetik bakarrik errauntsak geratzen dira orain, eta etorkizuna airean desegiten den ke pozoitsu batek marrazten du.

Neu, sutea hasi baino lehen, adierazten ari naizen kode hauen bideetatik nenbilen hausnartzen; sormen prozesu batean lan egiten, nire *obsesio*-etako bat errealitate bilakatzeko asmoz: distopia eszeniko bat sortu. Kierkegaarden pailazoaren alegoria eta liburuei su emateko ohitura zaharra nire iruditegian nituela, bat-batean errealitateak nire ikuspegiak gainditu zituen guztiz eta, egoera berri horren zurrunbiloan murgilduta, adierazi nahi nuenak beste irakurketa bat beharko zuela sentitu nuen. Ez naiz eroso sentitu testuinguruaren eta sormenaren arteko harreman berri horretan.

Nerabe nintzenetik errealitatea gorroto dut: institutua, familia, telebista, arauak, eginbeharrak, helduen aholkuak, etorkizun planak... Errealitateari gerra eginez bizi nintzen txiki-txikitatik, nire barne munduaren subirano. Jolasean aurkitzen nuen bakea. Ez dut hitz egiten jolas zehatzei buruz ezta denbora pasatzeko modu bati buruz ere, bere arauekin irabazi eta galdu ahal duzun jolas bati buruz, jolasa munduan egoteko modu bat bezala baizik: espazioa eta denbora bizitzeko modu bat bezala, besteekin aurkitu eta erlazionatzeko beste bide bat bezala, erotikoa, ezezaguna eta berria.

Bizitzaren jolasaren maitale izanda ezagutu nuen antzerkia. Antzerkiak errealitatearekin bakeak egiteko bidea ireki zidala esango nuke. Antzerkia gizadiaren posibilitate guztiak mahai gainean jartzen dituen artea delako. Maskararekin estaliz geure benetako aurpegia erakusteko gai garen moduan, antzeztuz geure izatearen egia azaleratu eta ezagutzeko

aukera ematen diogu geure buruei. Beste batzuekin antzez-tuz ispilu labirinto batean sartzen gara, non errealitatea biderkatu egiten den, forma berriak hartuz eta labirinto horren barrenean adierazkortasunak duen konplexutasunaren jakin-mina handituz.

Ulertu nuen: errealitatea ez da dagoen gauza bakarra. Baina gaurko *errealitatearen zaindarien* uniformeak jantzi dute, begirada zorrotza dute eta jolasteko gogorik ez. Antzerkian gabiltzanak erronka handi eta berezi baten aurrean gaude-lako sentsazioa daukat orain:

1. Geure lanaren garrantzia sozializatu behar dugu, *eragin-kortasun*-aren diskurtsoan erori gabe.
2. Burujabe izan behar gara, instituzioen dependentzia erraldoia duen sektore batean.
3. Sortu eta biziraun behar dugu, askotan bata edo bestea aukeratu behar dugun testuinguru honetan.
4. Elkartu behar gara; indibidualismoa, lehiakortasuna, mesfidantza eta murrizketa ekonomikoak nonahi dau-den testuinguruan.
5. Ezezagunera bideratzeko joera izan behar dugu, programatzaileek arriskua eta ezezaguna beldurrez jasotzen duten mundu horretan.

Arte eszenikoen munduetan murgildu baino lehen proiektu agroekologiko propio batean egiten nuen lan. Baratzean lan egitetik nentorren eta *Baratza* aretoan aurkitu nuen arte eszenikoei heltzeko lurra. Horrexegatik, paralelismo horri helduz, egokia iruditu zait nire ikuspuntua azaltzea. Alegoria honen baitan adierazpena litzateke geure lurra, geruzaz osatua: gorputza eta gogoa, sena eta zentzumenak, espazioa eta denbora. Bertan espezie ezberdinetako landareak daude, artista zein konpainiak; bakoitza izaera eta hizkuntza

propioekin, baina denak elkarri eraginez. Landareei so eginez, adi, eguzkia dago, bere begiradaren energiarekin elikatuz: horra hor gure publikoa.

Eta zein litzateke ura? Zer xurgatzen dute landareek indarrez eta osasunez hazteko? Ahots serio eta irmo batek erantzuten du atzealdetik: «Diru-laguntzak!». Ba, ez, jaun-andreok, *plazeraz* ari natzaizue. Geure baitan dago, zerutik erortzen den lehengaia da kasurako, ziklo luze baten parte delako. Askatasunez adieraztearen ondorioz ureztatzen gara *plazeraz*: bidean beste hainbat sentimendu igaroko ditugu, baina horra hor jarraikortasuna bermatuko duena. Lau osagarri horiekin arte eszenikoek badaukate existitzerik. *Hippie*-egia bada teoria hau zeuretzat, ez kezkatu, saiatuko naiz azaltzen zergatik diren garai ilunak arte eszenikoentzat: kaka zaharra!

Nire ustez, lanbide eder honetako diru kontuen aferarekin paralelismorik paraleloena hauxe da: dirua geure baratzetako kaka da. Bultzatzen gaitu, bai, baina usain txarra dario. Antzerkigileen baratzetan kaka publikoaren bidez egin dugu aurrera orokorrean, dependentzia harreman bat sortuz; ongarri kimikoegia akaso? Ez daukat neuk horretarako erantzunik, baina argi dago satsa lortzeko bideak gero eta zailagoak direla, eta izango direla. Testuinguru honen aurrean bi bide hartu behar ditugu aldi berean, nire ustez: instituzioei presioa sentiarazteko borroka egin, eta kakaz hornitzeko ereduak bilatu. Kaka lortzeko beste moduak pentsatzeko zailtasunak ditut, zinez, baina galdera bat datorkit burura gai honekiko: zer gertatuko litzateke geure irudimena eta sormenaren potentziala eta indarra egoera kontrolpean dutenen aurka erabiliko bagenu? Ekintza artistiko kolektibo zuzena! Ametsak ametsak dira; baina, serio hartzen ez baditugu soilik.

Hauxe da geure gaurko paisaia: lurra zabala da, baina oso kutsatuta dago: turbo-kapitalismoa, teknologizazioa, prekarizazioa... Negua heldu da eta eguzkia ez da askorik ateratzen; zer egin dezakegu publiko berriak lortzeko? Ura egon badago, baina garrantzitsua da geure iturburuak zaintzea, askatasun eta plazerez sortzeko guneak mantentzea berebizikoa da momentu hauetan. Kaka gabezia bistakoa da, asmatuko ote ditugu ongarriak lortzeko borroka eta eredu berriak?

Eta paisaia zimmel honetan nola loratuko gara? Ba, neuk, ortu lanetan nenbilenean, bide anitz uztartzen zituen erronka ezagutu nuen: agroekologia. Lehenik eta behin, geure lurra defendatu behar dugu, geure artean elkartu (elkarlanean, elkar laguntzaz, elkartasunerantz) eta eredu kultural osasuntsu eta oldarkorra erein. Horretarako haziak badaude euskal antzerkigintzan, benetan ugalkor eta duinak; neuk heldu berri denaren xumetasunez botatzen dut nire aldarria. Agroekologiaren oinarriak autonomia, iraunkortasuna eta ikuspegi holistikoa diren heinean, gizarte eredu kapitalistak ezartzen dizkigun gaitzen aurrean alternatiba bat eraikitzea duelarik helburu, interesgarria iruditzen zait, eta horrelaxe helarazten dizuet.

Indibidualismoak, errepresioak eta merkantilizazioaren hazkundeak kultura eredu bat dakartzate atxikita. Ez da existitzen *Kultura* modu abstraktuan; kultura ez da ona edo askatzailea berez, gizarte eredu bat justifikatzeko tresna ere bada askotan. Neure buruari galdera: zer esan nahi dugu *Kultura defendatu behar dugula* diogunean? Izan gaitezen kultura hegemonikoaren aurrean lubaki emankor bat. Gutako bakoitza ispilu bat bagara begira diezaiozun, denon arteko erantzunen bila; hortxe aurkituko baitugu, ispiluz inguraturta gaudenean bezala, infinitua.

Irlak gara

Marina Suarez Ortiz de Zarate

Historiaren une guztiak pertsona bakoitzaren bizitzaren uneak dira. Haietariko batzuek kontziente egiten dute gure existentzia eta egia. 2020ko udaberriak pertsona bakoitzaren mundua eta norberaren egia agerian utzi ditu, ziurrenik, era gordin batean. Niretzat bertan hasten da borroka, borrokaz hitz egin nahi badugu. Mihai errumaniarra ezagutu nuenean, zera esan zidan: niretzat mundua atera hasten da. Bere etxeaz ari zen. Eta galdurik banago, hitz horiek beti etortzen zaizkit.

Ez dut inoren etxean sartzeko eskubiderik. Ez dut ondo-koa ni baino pribilegiatuago, zoriontsuago, pobregago edo aberatsago den epaitzeko eskubiderik. Egia gizabanako bakoitzak duen egiaren nozioari dagokio, eta ezin da inposatu.

Arteaz hitz egin nahi dut, baina horretarako beste gauza batzuei buruz hitz egingo dut, hala nola egiaz edo munduaz. Irudiak ekarriko ditut, materia ilun eta nahasi batetik eraikiak dauden irudiak, zientziaren bitartez frogatu ezin direnak inkoherentetik hurbil daudelako. Adimen irudimentsu eta kaotiko baten menpe dagoena ekarriko dut, gorputza mundu nahasi eta kaotiko baten erdian jartzen duena. Leku horretan gertatzen da bizitza eta leku horretan bizi gara.

Eta hortxe sortzen da artea.

Artearen esferak

Andrei Tarkovsky-ren hitzetan, «Gizakiak, beti modu berrri batean, bizitzaren eta izatearen izaera ezagutzen du. Munduarekin harremanetan jartzen da behin eta berriz, munduaz jabetzeko nahiak eraginda». Eta jarraitzen du: «Arteak egia absolutuaren hieroglifikoekin lan egiten du eta bakoitzak, artelanaren formarekin, munduaren irudi berri bat proposatzen du, egia bat, alegia. Zientzian, aldiz, egiek eskailera baten forma daukate eta egia berri batek aurreko egia uka dezake. Artearen irudiak, aldiz, barnean perfektuak

diren esferak dira, bere baitan itxiak, elkar osatu edota aurrekoaren kontrakoa esan dezakete, baina inoiz ez beste bat ukatu. Elkar elikatzen dute eta bere osotasunean esfera berezi bat osatzen dute, orokorragoa eta infinituraino hazten dena». ²

Artea misterio bat bada, beraz, zapalduko dugun lurraldea lokaztua eta uherra izango da. Hain zuzen ere, materia linguistiko hau argitsua eta zentzuduna suertatzen zait, bertan egia gezurretik hurbil dagoelako.

Egia jariatzen da burua eta sentimenduak jariatzen diren bezala.

Ikuspegi hauetatik, artelana egia indibidual bat aurkitzeko saiakera da, irudien edo esfera perfektuen bitartez gertatzen dena. Norbaitek zerbait ikusi edo entzun izanaren arrastoa uzteko desioak jota, modu bakar batean gauzatu zuen, bere begi edo gorputzetik forma jakin baten pean, munduari bere mundu-zatia eskainiz. Horrela eraiki da gaur egun ezagutzen duguna: ekintzen bitartez arrastoetatik sortzen. Horrek zerbait oso simplea gordetzen du bere baitan, eta nahiz eta mistikora jo, gustatuko litzaidake mundua, egia edo magia bezalako hitzak intimoak bihurtzea, edo, besterik gabe, esanahi zurrunik ezarri gabe. Baina ez dut artearen funtsa edo zentzuari buruz gehiegi esan nahi.

Erregina eta herria

Lerro bat marraztuko dut eta ertz bakoitzean dantzan ari diren kontrako bi puntu jarri. Norbanakoa eta kolektiboa, edo erregina eta herria. Bataz hitz egitean besteak oihartzun bat botatzea nahi nuke, biak, funtsean, elkarren antzekoak bezain kontrajarriak direla agerian utziz. Egiten duguna dantza horrekin loturik dago. Izan ere, gure talde izaerak *bestearen*

2 Andrei Tarkovsky. "Esculpir el tiempo". Ediciones Rialp, Madrid

bitartez mundua ikustera eta bertan jokatzera bultzatzen gaitu. Behar horri esker komunitateak zentzua hartzen du.

Marraztutako lerro horrek edozein polaritateri dagokion dialektika errepresentatzen du. Izan ere, bi dauden unean ez doa inoiz bata aurretik eta bestea atzetik, bien arteko dantza da, alegia. Dialektika horretan dantza egiten dute norbanakoak eta komunitateak, erreginak eta herriak.

Baina, ordena txiki bat behar dugu, ibilbide orri bat, hasiera moduko bat.

Norbanakoa etxea da, eta bere esku, begi eta gorputzak agintzen duenaz osatua dago. Komunitateak eta norbanakoak etxearen ingurua eraikitzen dute. Baina bakoitzaren etxea da bakoitza nagusi den jauregia. Mihaiek esan zidan bezala: niretzat mundua ate honetan hasten da. Bere jauregi-az ari zen. Erreginak soilik daki zer nahi duen erreginak, eta ez du inoiz jakingo herriak zer nahi duen. Asmatzera ausartu liteke, baina alde batetik edo bestetik porrot egingo luke. Baina noruk uka dezake erreginak nahi zuena benetan nahi zuela?

Ez dut inoren etxean sartzeko eskubiderik. Ez dut ondo-koa ni baino pribilegiatuago, zoriontsuago, pobrego edo aberatsago den epaitzeko eskubiderik. Egia gizabanako bakoitzak duen egiaren nozioari dagokio eta ezin da inposatu.

Nire jauregitik hasiko naiz.

Idea hauek lurrera ekartzean problematika honekin topo egiten dut: norberarenak ez diren beharren arabera jokatzearena. Hau da, *bestearen* kontzeptu horrek, askotan, urrun kokatzen du norbanakoa, eta han, esan bezala, beharrak arrotzak suertatzen zaizkigu. Nola jakin dezakegu publikoak zer behar duen? Nola ezagutu besteen beharrak? Nik neuk neureak ezagutzearekin dagoeneko lan itzela daukat!

Hainbeste informazio erabiltzen dugun garaiotan, bizitza pribatua eta publikoa gero eta lausoagoak diren garaiotan,

erraza da *bestearen* irudia gure gainean eramatea, espektro bat bezala garraiatzea. Ziur aski beti izan da horrela, baina ni ez naizen hori arrotza da. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaidana zera da: zenbat eta harantzago bilatu, orduan eta urrunago egongo da gure jauregiko atea, eta bertan mundua ilunagoa izango da eta gure egia arrotzagoa. Zenbat eta urrunago orduan eta nahasiago. Hala ere, norberaren nahasmenetik fruitu gozoenak atera daitezke. Denbora daramat Maiterekin ondorio berdinerira iristen: eskala kontua da.

Premisa honekin batera ez nuke inolaz ere norbanakoaren ideia isolatu bat eskaini, kontrakoa baizik, komunitatea baita norbanakoaz eraikitako giza multzoa eta, esan bezala, dantza batean gertatzen baita. Ni-a inoiz ez dago bakarrik, komunitate baten seme-alaba da. Izaki bat, bere burmuina, bihotza eta gorputzarekin, bakarra eta ezberdina. Hor hasten da erresuma, etxearen oinarria. Eta norberaren erresuman norbera da erregina, eta hortik ez da sartuko erreginak sartzerik nahi ez duena. Beraz, has gaitzen gertutik. Kontrakoa etxea teilatutik hastea litzake.

Baina itzul gaitzen artera.

Tarkovskyyk apatzen dituen esferak, funtsean, munduaren eta munduaren eraginpean dauden adierazpen indibidualak dira. Artistoi, arduraren bat izatekotan, esfera hori aurkitzea dagokigu, munduari bere horretan aurkeztuko zaiona, norberaren egia indibidualaren gisa. Ondorioz, esferaz osaturiko komunitate bat sortuko da, elkar lotuko eta kontraesanean jarriko direnak, baina, batez ere, mundu-zatiak aurkeztuko dituztenak. Ez al da nahikoa?

...eta kuxkuxeroak hurbiltzen ziren, han zer zegoen jakin nahi zutelako, eta kuxkuxeroak ez zirenak ez ziren hurbiltzen beste esfera batzuetan lanpetuta zeudelako.

Amaitu gabeko kapitulu hau nolabait ixteko asmoarekin, artistaren leku horretaz hitz egingo dut. Juan Luis Morazak

artikulu batean dio: «Artea existitzen da artistak daudelako» eta Roberto Pigliaren esaldi batekin jarraitzen du: «Literatura –hobe litzake artea esatea– ez balitz, gizarte honek ez luke asmatuko. Literaturako katedrak eta egunkarietako eta argialetxeetako kritika-orriak eta literatura *cocktail*-ak eta kultura-aldizkariak eta ikerketa-bekak asmatuko lirateke, baina ez egiturari eusten dion praktika arkaikoa, prekariora, antiekonomikoa». ³

Praktika arkaikoa, prekariora, antiekonomikoa.
Esfera arkaikoa, prekariora, antiekonomikoa.
Jauregi arkaikoa, prekariora, antiekonomikoa,
non norberak agintzen duen.

Honaino, arte eta munduarekiko argipen bat besterik ez nuen egin nahi. Balio dit hurrengo irudiak aurkezteko.

Irlak gara

Irlei buruz hitz egin nahi dut. Berriro ere irudi bat kokatzeko, ea irudi horrek gure pentsamenduen sare kaotikoak argitzen dituen. Dena da gainontzeko guztiaren irudia, eskala handiagoan edo txikiagoan. Nire gorputzeko orin bat irla baten irudia izan liteke, euli baten hegaldia, kometa baten ibilbidea, zelula bat, lurra bera. Irla, hemen, artearen eta artisten irudiaren transposizioa da.

Hub Island New York estatuko *Thousands Islands* uhartee-tan flotatzen duen lur zati bat da. Munduko irlarik txikiena da eta bertan etxe bat eta zuhaitz bat baino ez dira sartzen. *Just Room Enough Island* ere deitzen zaio. Irla horretaz hitz egiten badut, nire buruari bertan bizitzea nolakoa

3 Juan Luis Moraza "La amistad de los artistas". El Pais. *Babelia* 19.03.05

litzatekeen galdetzen diodalako da, arte justu edota hurbil eta txiki baten existentziaz galdetzen diodalako.

Irla, esfera, etxea, mundua, egia.

Errealitatea modu gordinean aurrez aurre jartzeak artearen errealitatean eta haren jarraipenean pentsatzera narama, eta hor agertzen da irlaren irudia. Irudi lausotu hori agertzen zait eta hurrengo hitzekin topo egiten dut:

Irlek beti ekarri dute gogora lur-masatik aparte dagoen lur-eremu bat, babeslekua. Irlek beti babestu dituzte gure fantasia kontzienteak eta gure proiektzio inkontzienteak. Lotura gabeko zatiak dira, desobedienteak, psikearen sakonera urtsua elikatzen duten zati askatuak. Edo, bestela, norberaren altxorra dagoen espazioa adieraz dezakete.

Eta bertan gertatzen da bizitza, eta bertan bizi gara. Ukaezina da guztiok irla baten jabe garela.

Itsasoan flotatzen ari den lur zati baten irudia ekartzeak arteak munduan duen presentzia nola ikusten dudana adierazteko balio dit. Aldi berean, irudiek Gaston Bachelard-en *Ura eta ametsak* liburura eramaten naute, eta pizgarria den esperoan transkribatzen dut:

Ura (...) patu mota bat da, etengabe izakiaren substantzia eraldatzen duena. Ez gara ibai berean bi aldiz bainatzen, gizakiak, bere sakontasunean, korritzen duen uraren patua baitarama. Urari kontsagratutako izatea bertigoan dagoen izaki bat da. Minutu oro hiltzen da, etengabe erortzen zaio substantzia zati bat.

*Uraren eta lurraren konbinazioak lokatzean aurkitzen du bere aitzakia errealista. (...) Irudimen materialerako benetako nahasketa ura eta lurraren nahasketa da.*⁴

Honekin, irla urtua, jauregi lokaztuaren edota esfera magiko nahasiaren irudiak aurkitzen ditut era gozagarri eta jostagarri batean, eta bertan egia propioak, gure beharrera hurbiltzen gaituztenak eta gure lur eremuaren erreginak bihurtzen gaituztenak. Hortik mundura, mundua gure barnera sartzearen zain.

Irla flotatzailean bizi nahi dut, eta bertan gertatzea espero dut.

Anekdotak bat (grazia egiten didalako)

Egun batean, nire ahizpak, beharrezko burokrazia lanetan zebilela, mezu hau bidali zuen gure konpainiaren *whatsapp*era:

Pentsatu dut oso barregarria iruditzen zaidala gure denbora eta energia burokrazian erabiltzea, dena oso serio, e-mailak eta guzti, eta horren emaitza gure aurpegiak fideo mendi batean sartzea edota ‘Salxitxa! Maite dut berba hau!’ esatea bezalako gauzak izatea.

Etorkizun utopiko-praktikoa

2020ko udaberriko eskala handiko eszenatoki sozialaren aldaketak, pixkanaka-pixkanaka, ustezko beharrak eta ohi-turak maila globalean aldatuko ditu. Makro-kosmobisio

4 Gaston Bachelard. “El agua y los sueños. Ensayo sobre la imaginación de la materia” Ed. Fondo de Cultura Económica. Colección Breviarios

batean pentsatzera behartuko gaitu, non bestea forma arrotzarekin aurkezten zaigun. Gure presentea lausotzen du eta gure etxea urrun geratzen da.

Dena da gainontzeko guztiaren irudia, eskala handiagoan edo txikiagoan. Baina, ordena txiki bat behar dugu, ibilbide orri bat, hasiera moduko bat.

Nire etorkizunerako proposamen utopiko-praktikoa *One room enough island*-en irudia da, irudiek ekar dezaketen beste hainbat irudirekin batera. Irla-arte, irla-artista. Giza-banako batetik kolektibora, erreginatik erreginarara, eremu batetik bestera elkar osatuz edo kontraesanez, baina inoiz ez elkarri ukatuz. Artearen baldintzak beti egongo dira artearen mugaz bestalde, funtsean bisontek eta zaldiak margotzen genituenean bezala ekiten baitiogu arteari. Kobazulo bat, non ezegonkortasunak eraginda lurra oinak okertuta ditugularik zapaltzen dugun, non, soilik, nahi dugun guztia sartzen den. Irla-kobazuloa.

Eta hemen gogoan dut Kihili Amonaren bideoa. Berak animalia baten itxurarekin telebista aurkezle baten ondoan eserita esaten zuen: «Ezin gara sistematik atera, bai sistema gure bizitzatik bota». Hain zuzen ere, hor sistema autonomo bat sortzen delako, bere kabuz bizitzeko gai dena. Sistema prekariora, arkaikoa eta anti-ekonomikoa, baina bizitzaz bete. Ia amaierara iristean, teatroa aipatu nahi dut bizi-bizia dagoen bizitza eredu gisa, inork ez bezala bizitza eszenatoki eta forma ugariaren bidez aurkezteko gai dena, Óscar Cornagok⁵ esaten duen bezala:

Teatroa ideia-konstelazio batera irekita dagoen espazioa da. Horren gainean tentsio-sistema bat

5 Óscar Cornago. "Teatro Postdramático: Las resistencias de la representación"

eraikitzen da, kontraste, aurkakotasun edo osagarritasun erlazioen bidez funtzionatzen duena eta zatikatze efektua sortzen duena, batasuna, osotasuna, hierarkizazioa edo koherentzia zalantzan jartzen dituena.

One Room Enogh Island kuxkuxeroak erakartzen dituen irla da. Eta gu, artistok, kuxkuxeroak gara.

Milaka urte igaro diren arren, lur zati bera zapaltzen jarraitzen dugu eta gauza bera egiten jarraitzen dugu. Edo, agian, kantitatea eta distantzia aldatzen dira, edo sofistikazioa. Horregatik, gure uharte justuan ematen ditudan urratsak hurbilekoak eta txikiak, lokaztuak eta inkoherenteak baina egiazkoak izango dira.

Amaitzeko, Tadeusz Kantor-en hitz batzuk. Finean, urteak igaro arren, pertsonen begitazioak gai berdinen inguruan egiten dira, eta besteak argitzen laguntzen dute.

Artearen bilakaera ez dago soilik alderdi formalen mende. Aitzitik, pentsamendu eta ideien etengabe-ko mugimendua da, batez ere. Nahiz eta baldintza historikoen eta bizi-baldintzen ideiak determinatu, haiek, era berean, berezko indar autonomoa izan dezakete, baldintza historiko berriak sortzeko eta, ondorioz, ideia berriak sortzeko gai dena. Ideiok, aldi berean, garapen autonomoko zirkuitu berri bat sor dezakete.

Artean arazo hau beste eremu batzuetan baino konplexuagoa da, artea, neurri handi batean, iru-dimenaren eta 'ezinezkoaren' esferaren eraginpean baitago, eta esparru hori ez baita bizitzaren

errealitatean kokatzen, ezta baldintza historikoe-
tan ere, subkontzientearen eta giza existentziaren
alderdi ezkutuenetan lotzen baita.

Arteak eta sorkuntzak eboluzionatu dezaketela
onartzen badugu, beren bilakaeraren ondorio ga-
rrantzitsu eta zailak ere onartu behar ditugu: au-
rretik entseatutako edo aurrez ezarritako bitarteko
eta formulak, efektistak direnak, formalistak edo
ideiarik gabekoak aplikatzeko debekua; aitzitik,
arriskatu egin behar dugu, aukeratu, metodo be-
rriak bilatu, ezezagunak eta 'ezinezkoak', ideia berri
eta funtsezkotik sortuak: antzerkia, oroz gain, artea
da.⁶

6 Tadeusz Kantor, "Teatro imposible" de "Teatro de la muerte y otros ensayos".
Alba Ed., Barcelona

Behor fin baten atzetik

**Xanti Agirrezabala, Maite Aizpurua,
Matxalen de Pedro, Igor de Quadra eta
Jon Ander Urresti.**

Horman Poster kolektiboa

Gaur, 2020ko ekainaren 17an, gabeko 23:30etan, ba-koitza bere gailutik, online bilera errituala egin dugu. I-Ching-i galdetuko diogu: Ze etorkizun du gu boston arteko kolaborazio artistikoak? I-Chingek txanponak sei bider bota eta hona emaitza orakularra: 26. hexagrama (Ta Ch'ü). Inora bagoaz, hara goaz:

Zaldi fin baten atzetik.
Iraunkortasun neketsua onuragarria da.
Bagoia erabiltzera ohitu ohi dela esaten da.
Onuragarria da lortzeko helburua izatea.
Merezi duen pertsona edo egoera baten bila.
Honekin batera, norbaiti edo zerbaiti aurre egitera ohitzen da.
Gauzak zailak izan daitezke, baina ona da aurrera jarraitzea.
Ideia ona da nolabaiteko planen arabera aurrera egitea.

26. hexagrama (Ta Ch'ü)

Oh, I-Ching, jainko berri eta handia.
Aste honetako nobedadia.
Zein lasaigarria zure jarraikotasunaren apologia.
Ze lasaigarria pentsatzia zalantzen aurrean orain artekoa dela bidia.
Prekarietate eta teknologiaren mundu astindu honetan gure taldiak izango duela kabidadia.
Talde zalantza, kritika eta nekeak ez duela urratuko gure konpañia.
Mantenduko gara bai bata eta bestia.

Zaldia, diño Elias Canetti-k, beti multzoetan, taldean, saldoan bizi izan da. Multzoan bizi eta multzoan ihes egin. Gero, gizakiak zaldia menderatzen duenean, agindua ezartzen du. Zaldia eta agindua. Zein da, beraz, zaldi fina? Agindupean dabilena? Multzoan ihesi dabilena?

(Ondo legoke taldean zaldi basati multzo baten eran mugitzea: trostan gora eta behera, korrika soilik arriskutik ihes egiteko, ezatsegin duguna gorputz-astindu bortitz batean gainetik kenduz, ostiko on bat emanaz noizbehinka... Indibidualismoan domestikatuegi ez bagagoz jadanik horretan jolasteko.)

Igorrek Xanti bortxatzen badu, hemen egongo gara.

Maitek Jonani zakila mozten badio, hemen egongo gara.

Matxalenek Maiteri gonorra kutsatzen badio, hemen egongo gara.

Jon Anderrek Igorri adarrak jartzen badizkio, hemen egongo gara.

Xantik Matxaleni, Maitek Xantiri, Matxalenek Igorri, Jonanek Maiteri, Maitek Igorri, Igorrek Maiteri...

Gure lanak inolako interesik pizten ez badu ere, hemen egongo gara.

Boloetako dirua galdu behar badugu, hemen egongo gara.

Gure eszenografia ez bada Baratzan sartzzen, hemen egongo gara.

Gure hizkuntza ez bada israelitentzat nahikoa exotikoa, hemen egongo gara.

HEMEN EGOTEA DELAKO BIDEA.

Duda animalistikoa: zertaz ari zara, I-Ching ahalguztiduna, zaldiaz ari zarenean? Edo zeinetaz? Wikipediak zaldia espezieta jartzzen du. Behorra berriz zaldi emea dela dio. Baina jakin badakit baserri inguru batzuetan zaldi daneri behor izenez deitzen diotela. Urte asako pasa ditugu euskaldunak berdinzaleak eta erdaradunak “-ista” gaizto guztiak zirela pentsatzen eta begira orain, euskarak maskulino generikoak sortzeko estrategia propioak ditu antza. Zertara datarren hau?

Gure lehenengo bilera datorkit gogora. Talde komunikazioaren kaosari aurre egiteko, zenbat beldur. Dana berria. Zenbat begi eta begirada mahairi bueltaka. Gorputz bakoitzean, zenbat esperientzia eta biderkatutako aukera. Zenbat ezintasun, zenbat hitzen falta, zenbat keinu berri, zenbat gogo eta zenbat barre. Denbora pasa ahala, zuen eta nire kodeek ez ziruditelako berberak ohartu nintzen, gure artean itsasorik sakonena kabitzen zela. Ulertezina zen laino baten barruan aurkitzen nintzela ohartu nintzen. Desira eta mesfidantza koktela, barra-barra. Eta horretatik

babesteko, hori izendatzeko, amorfoa eta

Gogoratzen naiz. Auzo galduetako liburutegietako gelak, txakurkume jaioberrien eta neskabilen irribarretan, zaborrontzietatik antzezlan atrezzoaren errekuperatuz prototipoen protoideiak protagonista. Gure prototipinak eta potropitilinak gaitzat, Arriaga palazio handiko moldaketak moldaketan. Barregura. Kar. Palazio handiaren gerizpetan piztutako suak bertako teloi “korta-fuegosa” jaitsiaraziko al du etorkizun hurbil batean?

Ahalegina. OK, I-Ching!
Ahalegin iraunkorra? Jode, I-Ching!
Ahalegin iraunkorrek elikagaia behar du

...

Besterik ezean, fedea eta entusiasmoa bazkatu beharko ditu gure behor finak, luze joko badu helmugarako bideak. Bazka ditzagun guk geuk ere, ze demontre! Posible bada, hausnar egiteari utzi gabe, bazka ditzagun fedea eta entusiasmoa: ondo murtxikatuz lehentasunak, baldintzak, helmuga.

Helmuga, jomuga... Beti atsegin izan dot “jomuga” hitza. Dardoa bota aurreko indarra neurtzeko momentua datorkit burura “jomuga” entzutean. Indarra neurtu dianaren erdigunean jotzeko. Saria eskuratzeke. Merezi duen egoera, ordea, gure

saria edo jomuga, hurbildu eta urrundu egiten da etengabe. Ez dago punteria ona luze mantentzerik Euskal Herriko eszena garaikidean euskaraz bizirauteko. Jomugak, kasu hontan, tentatzen gaituen azenarioa dirudi eta, gauzak horrela, zaldi fin bat baino asto burugogor bat hobeto letorkigu, I-Ching maitea. Evangelista, Molekula, Maurizio, Valentina edo Houdini izeneko astotxu bat.

Etorkizunean antzerkiak ikuslerik ez badu ere, euskal antzerkiak iraunen du zutik.

Oh, I-Ching, Arestiren *snapchat* laguna. Ze lasaigarria pentsatzea, euskal antzerkiak etorkizuna duela, berez merezi duelako eta ez balio duela demostratu behar duelako. Gure estetika folklorikoguztia ustiatzen dugunean, euskal antzerkia hemen egongo delako. Zerbaiti buruz hausnartzea ez delako beharizan bilakatzen, produzitzea denean bidea.

Sarri askotan, guk, pekatariok, gure buruari galdetzen diogu: merezi al du, dramaturgia berriei buruz idazten jarraitzea, bereziki, gure obrak testuaren pisu historikotik urrundu nahi ditugunean? Merezi al du egoera prekarioan produzitutako prekaritatearen inguruko antzerki-hausnarketa liburu bat?

Eta hor agertzen zara zu, I-Ching, *link* ahalguztiduna!

IT'S GOOD TO KEEP GOING ON.

Frightening I-Ching maitea, Fucking Frightening!

Gu hemen egongo gara, gu ez garelako arazoa, gu jende kritiko, kultu eta sensibilitateduna gara. Arazoa mundua da. Noizbait onartuko gaitu.

Ni izorratzen nauena, batez be, “ko-” eta “-laborare” arteko akoplea da. Batetik, “-laborare” (norberak zama eta nekea daramanean) dago eta bestetik “ko-“ (norbera lagun konplizea denean) aldizka eta momentu zehatzetan zama eramaten duena dago. Akoplea, beraz, bien txandantza (txandatze-dantza) konplikatu eta erritmo arritmikoetan oinarritzen da: norekin eta zein baldintzetan “laborare”? Noiz eta nola “ko-”? “ko-” naizen uneetan ez al naiz ere pixkat “-laborare”? Behin, ederra izateko itxura zuen kolaborazio baten hasieran, ardo kopa bati uko egiteagatik (festa batean, lurrean eserita, *chillin´out*) konfidantzak eztanda egin zuela ulertu nuen. Beste batean, emankorra zirudien kolaborazio talde batean konfidantza piramidala ezarri zenean ospa egin nuen.

I-Ching, bidenteen erregina! Patatak ikusi ditut. Frijitzen, niretzako bakarrik. Eta bapatean ez naiz kolaborazionista sentitu. Arriskuan nago? Hau al da etorkizuna,

patata bakoitza bere txokotxoan frijitzea? Batera gaude, bai, baina bakoitza bere kasara frijitzen. Guztiek beraien patata-tasuna definitu nahi dute, libre, klixee-tan erori gabe, baina konkretuak izanik. Maria Goirizelaiaren euskal gatazkaren definizioa ematen du. Bakoitza bere saltsan. Hau al da etorkizuneko afarien patata tortillen definizio objektiboa, pataten akumulazio hutsa? Nik gehiago espero nuen. Patata ezberdinen mosaiko honek ez du nire tortillaren definizioa asetzen. Indijestoa da.

Duda geografikoa: non da HEMEN? Hemen, liburu honetan literalmente? Konbertsazio honetan? Treneko bagoi honetan? Pentsatzen hasia nago akaso gu ere cool-labore-akzionistak garela: interes propioen faboretan etorkizuna segurtatzeko inbertsio bat egiteko lan egiten duten horietakoak.

Apuntatu orduan ni ere, Xanti, afarira, ta jan daigun torillapatatas goxo hori. “Hemen gaudeee ta poztutzen naiz...” kantau daigun sobremesan!

Bestalde, HEMEN GAUDE horri ironia usaia hartzen diot, eta orduan, berriz ere, arazo berdina daukagu: ez dakigu literalak izaten eta erretorikan galtzen gara. Portzierto, hori ere errebisatu beharko genuke antzerki garaikidean, galdera erretoriko gehiegi egiten ditugu, entzuten

duenari erantzuteko tartea utzi gabe.
Kontraesanak eta ateratzeko.

I-Ching, barkatu nire presak, batzuetan euskal panoramaren oparotasunarengatik sarraski itzelak egiten ditut, bai instagramean eta baita Arabako patata lautadetan. Zeharo nahastu zaizkit dramaturgia berriak eta neobaserritarraren atzazal zikinak. Aurrekoan Patxo Telleriaren liburu bat landatu nuen erremolaxen artean, ilbeheran, lurra ondo karetua, ilargi oso bat joan da eta ez da ezer ageri. Jakoba Errekondok esan dit, agian hazia zaharra zela, ezin duela ernaitu. Hau ere zure mezua al da? Kultura/kultus honetan sartzen ditugun haziak zaharregiak al dira gure uztak biderkatzeko? Ez al gara behar bezalako garaikideak gure garaiarentzako?

Nazkatu naiz, izango naiz alternatiba. Etorkizunean eraikiko dut nire ola eta egingo dut antzerki alternatiboa Bilboko zuloren batean eta museo dirudunen inaugurazioren batean. Izango naiz zerbaiten alternatiba eta alternatiboa eta komertzialaren arteko kinka larrian biziko naiz, hari fin horretako funanbulista. Bada, zer da zeren alternatiba?

Prusiako himnoa entzuten ari naiz orain-txe bertan, ta hain ederra da handitasuna...

Labadorako arropak atera berri ditut eta
pentsatu dut ez duela merezi eskegitzea,
Euskal Antzerki Garaikidez jantziko naiz
eta nire taldekideekin garagardo bat har-
tuko dut.

200 pultsazio minutuko

**Telmo Irureta Uria eta
Maite Aizpurua Olaizola**

Gure buruak idatziz fantaseatzeko/sententziazteko hitz hauek ekainaren 7, 8 eta 11n edukitako elkarrizketen zuzenketa ortopedikoak dira. Liburu honen urgentzia urgentziazoari erantzuteko, elkarrizketa askatzaileak idazketa ariketa faxista bihurtu izanaren testigantzak. Zuzenketak. Hitz sortzaileak bai, baina gaituaren erritmora eta moldera, 200 pultsazio minutuko (200 pm)⁷: hamar behatz mekano-grafiatuen dantza integratua, teatro inklusiboa, normalitate berriaren eszena.

Teatroaz idaztea teatroa idaztea da

Telmo eta Maite idazketaren denbora geologikoan ha-rrituta arratsalde batean:

TELMO: Ai barkatu poliki poliki idaztet...

(Pausa)

Aiii, barkatu eske pixkat aspertzen ai zea poliki idaztetelako, ezta?"

(Pausa)

Aitzakiya dala pentsaukozu, baña, eskeee... po-li-ki po-li-ki ai naiz ta ez dakit astiya izango deun bukatzeko..."

(Pausa + barreak + desesperazioaren lehen agerpenak)

Eske *(Pausa)* esku makal honekin *(Arnasa)*, nik *(Pausa luzea)* eskri *(Pausa oso luzea)* bitzeako...

7 Mekanografiaren Institutuak ebazten du 200 pultsazio minutuko (40 hitz minutuko x 5) dela pertsona baten idazketa mekanografikoaren abiadura egokia.

Eske nei zuk itezun dana asko kostauko zitzaten, buruan dakazun dana apuntatzia...

Ai oñ pentsatzen eongo zea motel idaztetela, ke leen-ttto..."

MAITE: *Tío*, barkatu,

barkamena ez da bide bakarra, baina barkatu:

bihatz-ahalgutiduna leno ta orain gañea bipedua naiz.

Joder, hau da liburu kolaboratibo bat idaztia? Ke mierda.

Eskritura automatikoikan iziñ berrasmatu. Iziñ zure hitzak ez manipulatu nere mekanogragiyan.

Mediokridadia sentitu ta sufritu laiket, beste hoyetako bat naiz. Lankidiekin konparatu, inbiriya sentitu, konpetitu.

Enaiz somatikamente radikala.

Katilu utzian zopa legorra.

Ta legor diyozu: "Hartu ba nire radikalidade dana zuretzako, ¡*quítamelo!*; *quítame la silla!*"

Bukatu diaz aldaka balantza bertikalak, herren desafiantiak, domestikatu iziñezko mugimenduak, genital deformatuak.

Iragan lisiatuai engantxatuta nao neure, Telmo.

Iragana denborari buruzko azalpenak irakurleari (Maiteren atzera-saltoa):

Besteak bezain ezgauzak izateko gaituak ginela adierazi nahian enamoratu ginen antzerki eskola batean. Edo hobeto esanda, Gorputzen (normalizaziorako) Kolegio Esperimentalean. G(n)KEak normalak dira, ez ugaritasunagatik bakarrik, prozedimenduz ere bai. Ikasleak esperimenzio motore-kognitibo-sentsorial-afektibo amaigabera bultzatu eta gero, eszenan, simetria neoklasikoa, mugimendu garbizalea, neurokoherentzia naturalista eta dekoru burgesa

erreproduzitzea da haien helburua. Motzean, originalak izan nahi duten interprete eta sortzaile mediokre eta egokiak erre + produzitzea.

Antzerkiaren ustezko unibertsaltasuna ospatu behar genuen *Uda gau bateko ametsa* kurtso amaierarako antzetzuz (gazteleraz, eta eskerrak!, euskarazko itzulpenen argitan). Gu nazkatuta geunden tradizio europarreko arketipoen bertsio desexualizatuak jokatzeaz: zu gizon zahar erditsusi maltzurra, eta ni sukaldari emakume aldakazabal onbera. Egun batean (ipuinetan beti iristen da egun hori) zaharrak, xebreak eta deformatuak bakarrik interpretatzera kondenatutako bazterreko gorputzen jabe ginela konturatu eta performatiboki matxinatu ginen: “Hemen-dik aurrera, istorioaren protagonistak izatea exijitzen dugu. Maitale heterosexualak, ugalkorrek, emozionalak, korrika tximeleten antzera eta borroka zaldien tankeran egiten dutenak izango gara. Desiragarriak izango gara eszenan, edo ez gara izango!”.

Ez gintuzten GnKEko programazio ofizialean sartu, baina klaseko ariketa batean behintzat Hermia eta Lisandro izan ginen, bost minutuz. Naturalismo inklusiboaren koreografiari ekin genion:

Argiak piztu zituzten. Zu gazte morroskoen antzera sartu zinen eszenatokian 5 km orduko abiaduran, eskuaren hipertonifikazioari esker aulkiaren mandoari elegantziaz eutsiz, eta “blablabla...”. Hirugarren parlamentuan sartu nintzen balantzaka, aurpegiko bekainak zoriontasuna irudikatzeko altxatuz, horrek nerbio ziatikoa liberatuko balu bezala, neska koskor lirainen ibilkeren kopia faltsuak eta “blablabla...” Jarraian zetozen maitale arteko elkarrizketak horrela banatu genituen:

Mugimenduaren periferia niretzat: eszenako esku eta hanka mugikor bakarrak nireak zirela irudituko zitzaionez publikoari, gure elkarrizketaren distantzia emozionalaren arabera mugituko nintzen hortik aurrera, urrunduz eta gerturatuz. Maiteminduaren orbitazioa, sigi-sagan.

Hitzaren epizentroa zuretzat: Arrazoiaren Arrazoa gizonezko pertsonaia batek izan behar duenez, eta hori zakildunek egin behar dutela irudituko zitzaionez publikoari, zu erdian gertatuko zinen hitzaren botearearen arabera bekainak, ahoa, mingaina, begirada eta ni neu (orbitantea) akzionatuz. Edozer, lepotik beherako edozer izan ezik.

Hortik aurrera dena errazagoa bihurtu zen. Nik nire borondatearen arabera ukitzen zintudan, esku bat sorbaldan jarriz hurbiltasuna edota sumisioa adierazteko, gatazka binarista bertsionatuz. Zuk gaztelerazko hitz ederrekin erantzun zenidan, aho espastikotik lerreputzuak erakutsiz baina tantarik erori gabe; artikulazio puntu perfektuarekin amets egiten duten txistukari propioekin (ez c, ez s, ez z: *ffnnnzz*), ahoskera entrenamenduaren erakustaldi paraolimpikoa eginaz. Nik euskaratutako gaztelerazko txistukari eta dardarkariekin erantzun nizun (*sz, sz, rrrr* eta bestelakoak). Orduan, eszenako maskulinitate/feminitate jokoak sinesgarriagoa egiteko, zure begiradaren parean, edo azpitik, jarri nintzen. Zu benetako gizona izateko, eta inor ez oharitzeko begietara zuzen eta autoritatez hitz egiteko modu naturalista bakarra ni mugituz burutu zitekeela; publikoari sortarazitako espejismo ariketa besterik ez zela. Angelu eszenikoen matematika eta begirada teatralizatzailea. Gero biok batera alboetara eta aurrera begiratu

genuen laugarren pareta bortxatu gabe, eta hasperen arteko etorkizun utopikoak irudikatu udarako oporretan pentsatzen dauden funtzionarioen antzera. Ilusionismo ariketaren segundo zehatzak kontatu eta amaiera apoteosikorako prestatu ginen zu zure ataxia zerebralez eta ni nire ataxia artrosikoaz baliatuz. Mugimendu garbituen bitartez dantza eszeniko elbarrituaren irudi magistrala sortua genuen: Titanic erromantikoa aulki motorizatuan. Horrela, 85 kiloko gorputzetik 50 ezkutatatu nahian aulkiaren kostadura igo neu; zeu besarkatzen utzi *pecho en quilla* delako hori aurrerantz irauliz; nik aulkiaren mandoa hartu zure esku diszinesikoaren intermitentziari espresio artistikorako aukera guztiak ukatuz, “maite zaitut” goxo esanez, boterea besterik ez bada ere entregatzeko. Azken hitzekin batera zu *montacargas* paralitiko eta ni *florero* herren bihurtuta atera ginen eszenatik, harro. Argiak itzali zituzten.

Porte gurpildunaren eszena honek zeharo emozionatu ohi du publikoa, gorputz eta tramankuluen pisu desplazamendua flipantea iruditzen zaiola dirudi.

Txaloen bitarteko ilunpean gurutzatu genituen begiradak, plazerezko bala konplizeak. Ordu txikitako beroaldiari soluzioa emateko marika eta bolleren arteko txortaldietan sortzen diren konplizitate begiraden berdin-berdinak.

Bi ordu beranduago *Titanic*-eko eszena errepikatzen ari ginen Zumaian, etxera bidean. Fikzioaren beharrei erantzuteko bainoago, errealitate hankamotzari irtenbide prekariora emateko. Garai hartan bide zuzenak luzeegiak ziren nire hankentzat eta errazegiak zuretzat, motorizazioa haragiarekin bat egiteak eman zizun trebetasunagatik. Minak arinduz, aulki gurpildunean etxera eramaten zenidan bitartean galdetu nizun: “Sinesgarria izan al da?”... Barre egin zenuen,

beti barrez Telmo. “Ondo egin dugu gehiago demonstratu behar genuelako, baina ez du pegatzen” esan zenuen oroitzenaren goxoaren masturbazioan: “¡Y nos quedó tan bonito!”.

Teatro elbarriaz idaztea teatro elbarria idaztea da

Maite eta Telmo idazketa horizontalaren konfusioan disfuncionatzen.

TELMO: Ahal deu nik esan ta zuk idatzi?

MAITE: Ahal bai. Zozergatik zeaz zu %92 inbalido ta ni %35. Baño ziñ iteizut bueltauko naizela benetako diskapazitua izatea, eszenan PENA merezi dun zuetako bat. Makulu ta danakin, garai zaharrak ospatzeko...

TELMO: Saiatu, baño etzeaz inoiz ni añako paralizatua izatea aiatuko, PENA ...


MAITE: Ta idatzitakua borratu ta berrize hasten bagea?

TELMO: Neri hitz bat borratu? Oañ? Kostau zaitenakin? Ja!

Denbora hurbilago bati buruzko azalpenak irakurleari (Telmoren joan-etorriak):

Jolas antzeko ariketa proposatu zidan Maitek. “Nola imajinatzen duzu irudikoaren etorkizuna antzerkian?” galdera abiapuntutzat hartuta, elkarri argazkiak bidali eta haien inguruan idatziz hausnartu. *Hausnarketa* hitza agian serioegia da, baina behin bi irudiak aurrean izanda, jolasa zirudienak pisua hartu zuen. Bagenekien interesgarria izan zitekeela, baina interesgarriagoa suertatu da.

Idatzi nituen lehen esaldiak: “Konplexurik gabeko neska da. Edo bere konplexuetatik ere elikatzen dena. Bere muleta, bere gorputza, bere poseak eta ispilu eta argazkietan ikusten duen bere irudia. Bera da. Onartzen du. Identifikatzen da. Eta den hori maite du. Emakume boteretsua”.



Duela urte batzuk idatzitako ipuinean ere “konplexurik gabeko neska” nioen protagonistarengatik. *Cleo ispilu aurrean* du izenburua ipuinak. Berriro irakurri nuen.

Ipuina: Beste edozein gaztetxo bezalakoxea, baina bere berezitasunekin. Alaia, baikorra, burugogorra, umoretsua, sormen handikoa, maniatiko xamarra eta nahiko kursia batzuetan. Garun paralsiak garapen fisikoan kalteak eragin dizkion arren, konplexurik gabeko neska da Cleo. Bai? Orduan zergatik mozten ditu argazkiak? Bere eskuak eta oinak ere bereak dira, zergatik desagerrarazten ditu? Horrexegatik, bereak direlako. Bereak direlako eta gustatzen ez zaizkiolako. “Ispilutxo, ispilutxo, nor da ederrena?”. Ipuineko erreginak bezala botatzen du galdera hain gaizki ez dagoela iruditzen zaionetan. Gaur ispiluak hitz egiteko erabakia hartu eta “Cleo” esan du. A ze susto-aurpegia gure protagonistarena! Ez zuen halakorik espero. Ikusi izan ditu txanpona sartzeko eskatzen duten makinak, eta “ateak ixten” dioten igogailuak, baina hitz egiten duen ispilurik... Edurnezuriren ipuinean bakarrik. “Zu, zu zara ederrena” izaten zen amaorde gaiztoak jasotzen zuen erantzuna. Zergatik ez du hori esan Cleoren ispiluak? “Cleo”. Beste Cleo bati buruz ari ote da? Beste Cleo bat zen Cleo gaixotu aurretik.

Lehengoa izaten jarraitzen duela pentsatzea atsegin du, baina lehengoa idealizatuegia dauka ispilu aurrean ikusten duen gorputz akastuna harena dela onartzeko. Agian hil zen neska txiki hura. Agian galdu. Distira berezia ispilukoaren begietan. Agian bere baitan bizi da. “Bai, hemen zaude, badakit”, xuxurlatu dio kanpoko Cleok barrukoari.

MAITE: Telmo, utziyozu dominatzailien hitzak erabiltziaz: onartua izan, konplejoikan gabe, barrukua ta kanpokua, emakume boteretsua, madrastra gaiztua... Txo, sistemak jan tzaitu. Heldutasun artistiko pixkat, faborez. Ez gabe, hemen “ni” hitza repetitzeko, ni, ni ta ni. Etorkizunaz idazia zan kontua.

TELMO: (*Barre aurpegira*) Gertatzeana da nik ikuspuntu para-filosofiko bat dakatela.

Maiteri ez nion kontatu, baina segituan jakin zuen irakurritakoan: Cleo berez-berez ni naiz. Prozesuan dagoena. Argazkian gorputza ezkututzen duena...



...eta eszenan berriz erakusteko gogoz dabilena.

Etorkizuna:

2030ko urriaren 7a, Garun Paralisiaren Nazioarteko Eguna Eszenatokian zutik eta biluzik. Benetako gizaseme batek helduta nauka, lurrera ez erortzeko. Atzean dago nire aulkia. Naizena naizela irudikatzeak min ematen dit. Baina egun horretan ez naiz elbarritasuna leuntzen saiatu. Gordina bada egoera, gordina behar du agerpenak. Horrela esanda tontokeria dirudi, baina batzuetan zaila egiten zaigu garena onartzea. “¡Duele saberse preso en este cuerpo!” diot diarka gizon eskasa sentiarazten nauten ezaugarri fisikoez gozatuz. Taula gainean lagun edo etsai izan daitezke.

Hirugarren argazkia. “Artistikoagoa”. Ez hain ulerterraza. Gu ere horrelakoak gara. Hain ezberdinak izanik, bion arteko konexioaz blaitutako irudi bat bilatu nahi izan genuen. Hauxe emaitza.



Goxotasuna transmititzen dit eta batere gustatzen ez zaidan esku oker hori elegantea ere badela esango nuke. Bi gorpuzten gertutasuna da, hala ere, eskua polita ikusarazten didana. Eszenan elkar ukituz, antzerkiaren bitartez hasiera batean desatseginak diren fisikoak edertzea oso litzake lan ona. Publikoari pentsatzeko gonbita egin eta arazoa gure begiratzeko moduan dagoela jakitea komeni zaigu, ordea. Erakargarri bihurtzen gara norbaitek emeki ukitzen bagaitu.

Artelanean transformatua izateko desiraezina den gorpuztik ez dago.

Datorren teatroa kutsatzeko galderen zirriborroa

Enkasillatuta gaude desberdin bezala?

Eta aktore diskapazitatu bezala?

Gure buruak kondentatzen ari gara lodiak edota minusbalidoak bezala aurkezten garenean? Haien buruak kondentatzen al dituzte beren burua gor, beltz, indigena, zoro edota euskaldun bezala aurkezten dutenek? Kondenarik ba al dago eder, profesional, gaitu, egoki eta desiragarri aurkeztean?

Gure egoera fisikoaz aprobetxatzen ari gara zerbait lortzeko?

Legitimoa da?

Pribilegiatuak ere bagarela aitortzeak gaituago bihurtzen gaitu? Normalago? Ilegitimoago?

Zenbat aldiz bete ditugu besteek (instituzio, zuzendari, lan-kide, telebistako programa...) haien proiektuetan desiratutako aniztasun kuota?

Zein aniztasun kuota desiratzen dugu gure lanetan?

Zergatik ez da mintzen jendea eszenatoki gainetik biolentziaz tratatzen ditugunean?

Zergatik erabiltzen dugu lisiatuok umorea –beltzena– arte bezala?

Zergatik hainbeste drama gure istorioak besteek kontatzen dituztenean?

Zer geratzen zaigu ironiaren atzean bakardadean –edota lagunekin– biluzten garenean?

Nola izan zaugarri biktima izan gabe?

Noiz egingo dugu negar publikoki?

Publikoari gustatzeko demostrazio ariketa behartua al da gure sortzaile lana?

Estrategikoki gara jatorrak antzerkiaren munduan?

Konplazentzia eta espektakularitatearen kulturaren konplizeak gara gu ere?

Inbidiak jaten gaitu? Harrotasunak? Identitateak? Ezintasunak? Erresistentziak?

Hegan aterako ginateke, ahalko bagenu?

Nolakako domestikazio ariketak jasan dituzte gure gorputzek normaltasunaren barruan espresiboak –eszenaren funtzionarioak– izan daitezten?

Zenbatekoa da ahalegina eszenan hemen eta orain ekin beharrean muskuluen atrofia, hezurren zurruntasuna eta mugimenduen kontrolaezina ezkutatzeko aktuatzen dugunean?

Anormalitatea espresiorako bide moduan praktikatu beharko genuke?

Nork? Nola? Edonork? Edonola?

Denak balio du?

Euskal antzerkigintzaren historia mesianikoak tarterrik izango al du mito epikoetatik harago oraindik instituzionalizatu gabeko friki eta munstroentzat?

Etiketaz erantzita goaz gu ere anormalitatea berridaztera

MAITEk Telmori: Erantzun baino lehenago, gogoratu izan zaren fikzio guztiak:

Aktore mekanizatua, ausardia bortxatua, estatua biziduna, inteligentzia motorizatua, ET-Bren modako diskapazitatua, heavy metal lisiatua, anfitrioi estrategikoa, pazientzia zaku anti-biktimista, gezurretako ipuin kontalaria, lau erruberra gaineko tren bidaiaria, sortzaile akomodatua, probokatzzaile eskuzabala, ahoskatzen ez dakien interprete medikoa, monologismo donostiarren sustatzailea, maitagarri inbertitua, langile milimetriko trankila, alaitasunaren profeta praktikantea, makina hutsa!

TELMOk Maiteri: Zuri orain errepassoa:

Aktore ez ohikoa, matxorra punttua duen eme goxoa, borrokalari baketsua, oholtzatik irakasle-lanetan aritzen den ahots leuna, beti zerbaiten kontra dagoena, duintasunari eskua askatzen ez dion artista desinteresatua, feminista supereuskalduna, intolerante enpatikoa, naturaltasunez jantzitako antzezle zirikatzailea, indartsu bezain hauskorra, xalada eta oso benetakoa.

Antzerki distopikoetarako zazpi e-BIDENTZIAK

1. Arte eszenikoak egokitu normalentzat. Zer da lehenetsi behar duguna, edertasun estetikoa ala teatroa denon eskura (eskuak ez dituztenentzat ere bai) jartzen dituzten bitartekoak? Ez dago aukeratu beharrik, eszenatik komunikatzeko modu irisgarriak, sortzaileak eta espresiboak dira berez. Zein ausartzen da horretara? Nork jarriko ditu horretarako baliabideak? Artistek eta konpainiek? Instituzio publikoek? Gure guraso eta lagunek? Diskapazitatu kapritxosoek? Hain utopikoa da galdera, eta hain gutxi dakigu guk ere, ez dakigu erantzuten.
2. Autosuperatu dadila publikoa, ez gu. Guretzat zoriontasun eredu bakarra egunero hobetzen joatea dela uste baduzue jai daukazue. Horri progresoa deitzen zaio, gaitasunen akumulazioa, eta gu ez gara kontserbadoreak, fabrikazio akatsak ditugulako eta ez garelako ondo kontserbatzen. Disidentzia korporalaren zikintasunak molestatzen bazaitu, autosuperatu zaitez zeu. Gure bertuosismoaz ez gozatzeak arrisku moral larrian jartzen zaitu. Itxialdi behartuan.
3. Teatro egokitua desegokitu. Publikoarentzako komun eta ate egokituak eta azpi-tituluak eta zeinu hizkuntzako interpreteak ondo daude, baina guk eszena ere izan nahi dugu, *egokientzat* gordetako leku pribilegiatu horretan jokatu. Modu posible guztietan: esku okerrak poltsikoe-tatik aterata probokatu, interesik gabeko interprete lan komunak egin patrikek bizirauteko, hankamotza ezkutatzen saiatuz transgresoreak izan aktorearen intimitatean.
4. Sinesgarritasunaren mugak lehertu. Zergatik sinisten du publikoak *E.T.*-n edota Arriagako ekoizpenetako efektismo dirudunean hain erraz, eta hainbeste traba jarri gu fikzio izateari? Amodiozko istorioak protagonizatu ditzakegu, desiragarriak izan; dantza egiten ari garenean

dantzistikoak gara eta ez mugimendua. Gauza sinpleak erraztasunez egiten ditugu, gorpuztutako pertsonaiek gure gorputzen gainean esandakoak ez dira gure bizitza miserabletatik automatikoki kopiatutako hitzak. Interpreteak, sortzaileak, koreografoak gara gu ere: manipulatzea gure lana da.

5. Ortzadarrak adarbakarrentzat. Bukatu daitezela teatro inklusiboaren kuota faltsuak eta aniztasunaren errepresentazio koloretsu eta aspergarriaren tirania. Mamirik ez badago, ez dago besterik erakutsi beharrik.
6. Lan txarrak eta erdipurdikoak egiten ditugula aitortu. Nahikoa autokritikoak bagara, inora ez doazen isiltasunak edo laudorioak aguantatzeko. Pentsatu bi aldiz exhibizionista izateagatik bakarrik “balienteak” garela esaten diguzuenean. Euri azpian bustitzea ez da drama bat, gertatzen da eta listo. Irabazi gabeko txalo bat gehiagorik ez, bota tomateak eta piropoak zuzenean bihotzetik bihotzera.
7. Ortopedia bizioz. Normalago funtzionatzeko gailuak nahieran erabiliko ditugu sorkuntzan, bipedoak izango gara edo ez, baina gure estilora. Makuluak eta narrasean dabiltzan gorputzak landatu, lerdez eta ezintasunez busti eta euskal antzerkiaren uzta kaltetzen duen zamuari bihurtzeko fantasia da gurea. Funtzionalitatez eta ideologiaz erdi antzuak garen arren, lumpen korporalak izanda ere, horizontalean erreproduzituko gara kontagioaren bitartez. Eta badakigu.

Antzerkia konpartitzeko aukerez idazten antzerkia konpartitzen dugun bitartean, 200 pultsazio minuturaino leheretzen zaigulako bihotza, zuei bezalaxe.

Ratikulin fiu fiu

Eneritz Artetxe Aranaz

Dxusturi Teatroa

Ratikulin

Kontua ez da bakarrik pertsona bati minak kentzea edo bizitza honetan pairatuko dituen gaixotasunak sendatzea. Gure zeregina da munduko biztanleak datorrigun aldaketa honetarako prestatzea. Izan ere, laster gertakari bitxi baten lekuko izango gara, laster estralurtarrek ezagutzen dugun mundua hustuko dute. Lur planetara 13 miloi espazio-ontzi etorriko dira Laguna konfederazio intergalaktikotik, Ganimedesetik, Orion konstelaziotik, Raticulinetik, Alfatik eta Betatik. Nik jakinaren gainean jarri nahi zaituztet, mugimendu hau guztia abian delako dagoeneko.

Carlos Jesus Michael

Aldaketa abian da. Froga zientifikoetan oinarrituta, baiez-tapen hau egin dezakegu hemen eta orain: hilabete batzuen buruan Ganimedesetik eta Raticulinetik etorritako zoro andanek hartuko dute Lur planeta. Dantza, birao, musika, lizunkeria, kaka eta zalapartaz beteko dituzte kaleak. Popaz gora jarriko dute gure pentsamendua eta ordura arte logika handiz defendatzen genuenak ez du zentzurik izango jada. Inauteri garaian gertatzen den legez, urtean zehar zentsuraturutakoak bere agerpena egingo du gure begien aurrean. Gezurrak agerian geratuko dira, barreek ordezkaturako dute tragedia. Eroen izurriteak hartuko ditu kaleak azkenik, teiatuak lurrean jarriz eta zapatei zeruan bere tokia emanez. Etxe eta izenik gabekoak, rapero ausart, zoro zein titiriteroak tronu gainean eseriko dira orduan eta hiritar adaptatu zein snob-ak kartzelarik sofistikatuenetan itxita geratuko dira.



Estralurtarrak, eroak, tentelak, itsusiak, itxuragabeak, pailazoak, titiriteroak, bufoiak, antzerkilariak.

Orduan, neuronak argiaren abiaduran darabiltzaten bi-daiari intergalaktiko hauek dekretuz ezarriko dute indarrean *anormaltasun berria*.

Zeren antzerkia beti kokatu izan da normatik kanpo eta antzerkilariak betidanik anormalak izan gara.

Inposatzen zaigun edozein normaltasunerako antidotorik egokiena anormaltasuna denez, arteak, kulturak, antzerkiak sendatuko gaitu.

X: Zer da normaltasun zaharra?

Y: Lehen onargarritzat hartzen zena.

X: Zer da normaltasun berria?

Y: Errealitateari buruz asmatzen ari den ikuspuntu berria.

X: Zer da normaltasuna?

Y: Inposatzen zaigun modeloa.

Aztertu dezagun azken hilabeteotan gertatu dena:

Lur planetako izaki ustez arrazoitsuena bere habian gordeta egotera behartua izan da (habiarik ez dutenak, auskalo...). Domestikazio handiz autokartzelatu du bere burua. Egoera berezi horren aurrean gertakari bitxi baten lekuko izan gara: arrazionaltasuna barruan zegoela aprobeztatuz, ezkutuko mamarroek beraien agerpena egin dute Lur planetako kaleetan zehar. Itsaso azpitik, basoetatik, eraikineta-ko hodiedatik, estoldetatik, herrien errai eta tripetatik atera dira lozorroan zeuden indar inkontziente zein naturalak. Piztiarik ederrenak gure begien aurrean: oreinak, basakatuak, behorak, dortokak, azeriak, tximuak, itsas txakurrak, izurdeak... Baina baita piztiarik ankerrenak ere: beldurra, bortxa, gehiegizko kontrola, matxismoa, arrazakeria eta faxismo ezberdinak. Horrela ba, ezkutuago mantentzen ziren

hainbat -ismo txar ere ikusi ditugu lasai asko eguzkipean etzanda. Denak atera dira, banan-banan, bata besteari buz-tanetik lotuta eta errenkadan.

-Ismo eta asmo txar horiek guztiak biltzen dituztenek mikroak hartuta zera adierazi diote munduari: "Titiriteroak ez dira beharrezkoak gizartearentzat". Ederra baieztapena. Lau-sengua iruditu zait haien ahoetatik etorrita. Eskerrik asko. Gure hilobiak prestatzen ari omen dira. Mila esker, nire hila-rrian "Dantzan, barrez lehertuta hil zen" jartzea nahi nuke, mesedez. Gu mespretxatzeko haiek lan hori hartzea ere... ez dugu hainbeste merezi... molestatu egiten ditugun seinale. Gu hor izateak buruko mina eragiten die, goragalea, mundu osoko anormalak gogora ekartzen dizkiegu antza denez. Normatik ateratzen diren guztiak ikusten dituzte gure aurpegie-tan, gure sorkuntzetan: beltzak, gorriak, horiak, emakumeak, zaharrak, umeak, transexualak, homosexualak, pobreak, down sindromedunak, indigenak... Beraz, eraiki nahi duten lerdea darion jendarte homogeen horren irudia apurtzen diegu. Apurketa horretan datza sormen lanaren funtzioa, be-raz, bide onetik goaz, lagunok. Jarrai diezaietela gure espazio-ontzi intergalaktikoek beraien izarren arteko ibilbideei.

Ratikulin fiu fiu!

Antzerkia maite dut normala zer den zalantzan jartzen duelako.

Antzerkia maite dut errealitatea denaren eta izan daite-keenaren gainean hausnartzeko espazioa sortzen duelako.

Gertakari berberaren gainean mila ikuspuntu izateko au-kerak irekitzen dit antzerkiak, mila egia erakusten ditu egia bakarraren aurrean.

Horrek motibatzen nau antzerkitik. Normak ez dit balio, ezta normatik datorren antzerkiak ere.

Nik antzerki anormala maite dut, eta horretara dedikatzen diren anormalak.

Konfinamendu honen ostean nire lanaren bidez normaltasun zahar, berri eta normaltasun eternalaren aurka borrokatuko naiz. Zin dagit.

Fiu fiu

Eguzkie badoa bere amagana. Eguzkie badoa bere amagana. Bihar etorriko da denbora ona bada. Ai, oi, ene, denbora ona bada. Eguzkie badoa bere amagana.

Maurizia Ideiturriaga

Nire beste utopia bat: arrasto fisikorik uzten ez duen antzerkia. Eguzkia alde baldin badu bueltatuko dena, bestela memorian biziko dena.

Efimeroa.

Hauskorra.

Haragizkoa.

Mamu antzerkia.

Gure gorputzen artean eremu jakin batean gertatu, bizi eta inoiz gehiago errepikatuko ez dena. Nire ametsa da bi, hamar, hogeitau, berrogeita hamar lagun kamerarik gabe gela batean sartu eta bertan aurrera eramaten den ekintzak haien arimak betirako kolpatzea. Une horretan gertatutakoaz ez dugu beste irudirik, ez dugu grabaziorik. Ez dugu ezer geure memoria baizik. Bakoitzak une hartaz egiten duen interpretazioa besterik ez zaigu geratzen esku artean.

Atzamarren artean irristatzen den harea.

Arrasto sotilean izozten den unea.

Antzerkia zein bizi gero eta gehiago inguratzen duten kamerak apurtu nahi nituzke, txikitu, zatitu, eraikin baten teilatutik behera jaurti: Nikon, Reflex automatiko, ordenagailu, sakelako... Ez dut antzerkiaren gaineko hainbeste

aztarna hain agerikorik nahi. Sentsazioak, usainen oroitzapenak, ahotsaren bibrazioa airean, izerdiaren usaina, argia azalaren gainean jauzika... Efimeroa, ezereza, altxorra.

Intimoa maite dut.

Barnea

Hezea

Muxua

Kafea

Burkoa

Komuna

Eskaratza

Ohea

Ganimedes

Raticulin

Antzerkia ez da antzokietan bakarrik gertatzen (hori bage- nekien). Kamera eta argiztapen berezietatik kanpo erama- ten du aurrera bere itzala. Itzal hori maite dut nik, entsegu saioak, ikerketa egunak, prestakuntza, helduen klaseak, ki- deekiko harremana, umeen antzerki eskolak, amateurren bilkurak, ipuin kontaketak, sormena bizitzarekin guru- tzatzen denean... Hor geratzen naiz pozik begira, hainbes- te begiratua izan gabe. Ilunpe horretan emaitzek ez dute hainbesteko garrantzirik, kozinatzen ari den borbor hori da esentzia. Mamu antzerkia. *Work in progress*, atzera zein au- rrera etengabe dantzatzen den olatua. Mugimenduan. Beti.

Maurizia Aldeiturriagaren ahotsak motibatzen nau, albo- karen soinu zoliak, mendi puntetako erromeriak. Kortatuk motibatzen nau, Anarik, Nina Simonek, Bachek eta Rachma- ninoffek. Motibatzen nau euskarak, munduko errefuxiatu eta desjabetu guztiek. Motibatzen naute izpirituz aberatsak direnek. Motibatzen nau gorputzaren presentziak, giharre- tako minak, ahotsaren soinuak, hitz zehatzen eragin sotilak.

Motibatzen nau antzerkilarien pasio harrigarriak.

Antzerkiko kideekin berriz biltzen naizenean egiten duten lana eskertuko diet, beraien ezinbestekotasuna ekarriko diet gogora. Antzoki, eskola, kultur etxeak irekitzen dituztenean instituzioek zein jendarteak gure lana aintzat har dezaten egingo dut lan. Zin dagit.

Ez baitira oraindik konturatu gure lanaren bidez sendatu daitekeela herritar bezala osatzen dugun gorputz erraldoi hau. Ez dira konturatu Ratikulinetik gatozela, hain zuzen ere, herriaren gorputz itzel hori sendatzera, haren izpiri- tua garena... baina horretarako, lan egiten utzi behar digute. Eta hori nire kristalezko bola honetatik ez dut hain argi ikusten...

Ratikulin, Ratikulin, Ganimesera joan eta etorri berriz.



Didaskaliak

**Josune Velez de Mendizabal
Fernandez de Garaialde**

2020. urtea da, honezkero guztiok dakiguna gertatu da, garai honetan gaude. Bai, kaka-mokordo. Tira ba, testuinguru horretan lagun batzuk galdetegi bat betetzea proposatu didate, aldizkarietako elkarrizketa laburren estilokoa, badakizue: Di-da, Motzean, Butakatxoan, Supituki, Zirt edo Zart... Ze izen inozoak jartzen zaizkien horrelako sailei...

Hasiko naiz:

—Zeintzuk dira orain arte artista moduan mugitu zaizkizun/zaituzten grinak?

—Tripak.

—Tripak taldea? Edo tripak fisikoki? Ez dut zentzua ondo ulertzen...

Grazia egin dit nire lagunaren komentarioak, bera Tripak kolektiboko kidea delako. Komentario horren harira batek pentsa lezake «zelako egoa duzuen aktoreok». Barre egin dut eta eskua sabelera eramanda erantzun dut.

—Tripak fisikoki.

—Zeintzuk izan dira orain arte zure proiektuak aurrera atera ahal izateko ezinbestekoak edo lagungarriak suertatu zaizkizun gauzak?

—Egiten dudana eginez egiten dudanarekiko konfiantza.

—Zein da egungo egoeraren diagnostikoa?

—Txungo.

—Nola eragiten dio errealitate berri honek zure grinari?

—Zapuztuz.

—Non kokatzen duzu (konpainia/artista bezala) zure burua egoera honen aurrean?

—Banatuta, batetik burua, bestetik gorputza, eta lehian.

—Zeintzuk dira zure/gure beharrak errealitate berri horren aurrean?

Intsistitu egin du lagunak.

—Bai, bueno.

Disimulatu nahian.

—Utopia hain da goxoa ezen...

Ez dut esaldia bukatzeko asmorik, ez baitakit nola egin.

—Ba hori, bota, arte munduaren utopia praktikoa zuretzat zein da?

Isiltasuna. Imajinatzen hasi nahi dut, indar guztiekin aritu naiz pentsatzen, imajinatzen baina... derrepentean arrazoiarekin talka egin dut. Plak! Horma garden bat nire buruan. Oihua barrenean, korrika egiteko gogoa, oxigenatzeko beharra, nekatzekoa, sentitzekoa baina ezin... ezin... ezin lau pareta hauetatik atera... orrooo! Laguna dut begira, isilik... arrankatu duen arte.

—Nola ez duzu ba utopiarik izango? Joder, debaldekoa da, gero auskalo beteko den baina amestea askea da, aske izateko erreminta bakarrenetarikoa ia...

—Badakit, baina... orain ez dakit, orain... ezin dut...

—Nola ez ba? Joder, asmatu alter ego bat neska...

—Ezin dut...

Arnastu dut, urduri nago.

—Ezin dut...

Gero eta gehiago.

—Ezin dut...

Itotzen ari naiz.

—Amestu...!

Esan dit kazetari-dinamitzaile-lagunak.

—Grabitateak bahitu ditu nire mikroinpultsoak... EZ NAIZ
GAI AMESTEKO!

Elkarrizketa amaitutzat eman du lagunak, eta nahi dudana erantzuteko esan dit gero, horrela publikatuko duela, ez dudala ezer asmatu behar, presiorik gabe.

2022: Distantzian eginiko elkarrizketa

Bi urte beranduago irakurri nuen elkarrizketa hura. Desfasatuta erabat, pelikulei buruz esan ohi den moduan, *ha envejecido mal*. Ba, horrelaxe; nire erantzun horiek beste inorenak izan zitezkeen. Haserre nengoen. Galduta. Frustratua. Kaka-mokordo. Jakin izan banu gero etorriko zena, erantzunak bestelakoak ziratekeen.

Horrelakoak, alegia. Ahoz gora irakurriz gero, tonu epikoa erabili nukeen.

—Zeintzuk dira orain arte artista moduan mugitu zaizkizun/
zaituzten grinak?

—Izan ginena eta egiteko genuen gaitasuna ezagutarazteko
beharra...

—Zeintzuk izan dira orain arte zure proiektuak aurrera
atera ahal izateko ezinbestekoak edo lagungarriak izan
zaizkizun gauzak?

- Konplizeak.
- Zein da egungo egoeraren diagnostikoa?
- Viva la pepa, pa—pepa—tetikoa...
- Nola eragiten dio errealitate berri honek zure grinari?
- Iraultza egitera bultzatuz.
- Non kokatzen duzu (konpainia/artista bezala) zure burua egoera honen aurrean?
- Gure inguruan dagoena ikusita, besteen gainetik, zertarako ukatu, goian kokatzen dugu gure burua.
- Zeintzuk dira zure/gure beharrak errealitate berri horren aurrean?
- Beharrak izan ahala bete egiten ditut, sinplea da.
- Nola antolatu informazio hori etorkizun bat diseinatzeko?
- Nola? Ari gara, begi—bistakoa da. Jendea lo dagoen honetan, gure esku dago kultura oinarri duen gizartea diseinatzea. Ari gara.
- Non kokatu zure burua hemendik aurrera?
- Sorbalden gainean.

Barre egiten dut, grazia egin dit, bai badakit norberak egiten dituen txistei buruz barre egiteak estatusa kentzen dizula, baina hala ere... kar, kar, kar.

- Ze erabaki hartu behar ditugu gure grinak bizirauteko?
- Sua!
- Zeintzuk dira artista moduan dituzun tresnak errealitateari aurre egiteko?

Nire buruari begiratu diot oraingoan ere ispiluan eta, ostia! Orain bai! Nola egon nintzen hain ahul, hain desagertzeko zorian?... Duela bi urteko hark ez dauka zerikusirik gaur ispiluan ikusten dudan honekin.

—Zein da etorkizunerako daukazun begitazio utopiko-praktikoa?

—Etorkizuna gaur da.

Sikua izan naiz azken erantzun horretan. Kazetariari ez nioke argudio gehiagorik emango. Elkarrizketa hemen amaituko litzateke baldin eta orain egingo balidate. Harroputza izan naizela? Tira, agian, baina nahita egin dut. Nire elkarrizketa utopiko-praktikoa da.

2050

New-jar more txin txan txun aldizkari ezagunetik elkarrizketa bat egin nahi didatela esan didate, Gugeja Jaiman geratu gara, 2020. urte bitarteko bizimoduaren objektuak eta dokumentazioa biltzen duen museoan. Jendeak apenas du interesik lehengo bizimoduagatik, beraz, nahiko lasaia eta segurua izaten da bertan kazetariarekin elkartzea. Nire *maki-pelu-comunication assistentak* eraman nau. Museoko kafetegiko harreran dauden neonezko argiek nire likrazko jantzia are dirdiratsuagoa egin dute. (Likra-likra, bi bider esaten baduzu autentikoagoa egiten du. Kafe-kafe, ez *torrefakto*; *piel-piel*, ez *polipiel*...). Likra materiala *the last* da modan. Kultur munduan izen gorena duen aldizkaria da. 60ko hamarkadako lazo bat ere gehitu diot egungo tendentziari, esentzia behar duelako norberaren estiloak, oso kutsatua egon arren.

Elkarrizketatua izatera ohituta nago orain. Gasik gabeko proteina batidoa ekarri didate, kamera eta makillajea prest, *pelu* eta *maki*, nork esango zidan 2020an niri holakorik merreziko nuenik. Dena aldatu da ordutik, jainkosa naiz, gara, ni eta kultura sektorean bizi garen guztiok.

Kazetaria zain dago, haren aurrean eseri naiz agurtu ostean. Xumea, elegantea. Kazetariak ez dio uzten irribarre

egiteari. Ez diot espresibitaterik sumatzen bere irribarre simulatuan, ezin dut bere benetako emozioa asmatu. Ona naiz, oso ona, emozioak asmatzen. Nik ere ikasi dut sine-tsi gabe barre egiten, 2020. urtea baino lehenagoko Gaztea Irratiko esatarien moduan.

Broma tonto bat egin dut orduan bere ordenagailuaz, desfasatua dagoela eta nahi izanez gero nire txakurrarena emango diodala. Broma snob bat izan da, bromak gustuko ditut, umorea dut, eta horretaz jabetzen naiz, horregatik ere ezaguna naiz baina, bai, onartzen dut, ez naiz oso fin egon. Nire *up classs business style* agerian utzi dut, «ez dago ondo» esaten diot nire buruari, baina tira, ez dit inork leporatuko.

Nire hastapenetako ikuskizunaren *revival* bat egingo dut datorren astean. Horren harira gaurko elkarrizketa. Bira dugu prest. Jendea zorutzen dago: *Nisune*.

«Izenean asmatu nuen, nahiko japoniar kutsua dauka eta», diot boz goran. Orain japoniarrak *top-top* da. Kazetariak irribarreak eusten dio, denbora guztian, mini kar-kar-kar bat ere egin du argudioa entzun eta gero. Nik ozenago. *Flash, flash*, argazkiak. Ez nau bat-batean harrapatu, orain badakit nondik datorren eta nora begiratu behar dudana ederra agertzeko. Aurrera, elkarrizketa hastera doa.

Hamsterraren teoria
eta hiru burutazio
idealistopraktiko

Formol Laborategia

Formolier lost kid ikuspuntua

Euskal antzerkia kaiola bat da.

Talde edo norbanako bakoitzak bere gurpila dauka.

Kaiola gurpil itxiez osatuta dago.

Antzerkia egitea gurpilean korrika egitea da.

Kaiola berdinean gaude baina ez gara gurpiletatik ateratzen.

Gurpilean geldi egon gara eta uste dugu gehienen helburua dela berriz ere gurpilean korrika egin ahal izatea.

Triste da norabiderik gabe aurrera jarraitzea gehienen grina izatea.

Beste hamster batzuek badakite zergatik eta beste batzuek ez.

Zergatik?

Kaiolan hamster berriak sartzeak batzuei ilusioa egiten die eta beste batzuei beldurra ematen die.

Zergatik?

Beste belaunaldiek eman diguten aholku onena eta bakarra egitea da.

Hamletek bere buruari galdetzen zion bezala, egin edo ez egin da hartu beharreko erabakia.

Hamster asko haien artean gaizki eramaten dira.

Diru laguntzak janaria dira.

Diru laguntzengatik borrokatzeko soilik ateratzen gara gurpiletatik.

Aspaldian diru laguntzetatik jan ez duten hamsterrak batzuetan hil egiten dira.

Gustatuko litzauguke gehiagotan gurpilez aldatu ahal izatea eta gurpilak konpartitzea.

Oso *guay* legoke hamster guztiek bazkari bat egitea.

Batzuetan badirudi ez dagoela gurpilik denontzat.

Agian ilara dago kaiola kanpoan eta gurpil bat libratzen denean hurrengo sartzeko da.

Ez dakigu norena zen gure gurpila.

Zergatik gurpilek ez daukate norabiderik?

Sistemaren interesa da kaiola itxita mantentzea hamsterrak libre izan ez daitezen?

Formolier lost teenager ikuspuntua:

Euskal antzerkia, *sin más*, mierda bat da.

Antzerkia egin nahi dut.

En plan, antzerkia egin.

Bua txabala ze mierda.

Formolier lost adult ikuspuntua:

Formol Laborategiak hiru zutabe nagusi ditu: Lehenenik komunitatea sortzea; taldean, antzerkigintzan eta ikusleengan. Guretzako herria da komunitatea. Bestalde, alderdi artistikoan, gizaki bezala habitatu ez ditugun lekuetara bidaiatzea edo gizarteak jada deskubritu dituen prozesuetatik trantsitatzea dugu helburu. Azkenik, ondare kulturalari ekarpena egitea eta, hala, gizarte modura haztea, emozio, hausnarketa eta kritikotasun alorretan.

Lan egiteko orduan guretzat giza taldea da garrantzitsuenena. Taldea osaturik, ezinbestekoak izan zaizkigu komunikazio beharretik jaiotzen den ekintza nahia eta inguruko energiaren babesa.

Esango genuke euskal antzerkiaren profesionalizatzeak eta hazkundeak geroz eta kalitate handiagoko obrak ekartzen dituela, baina sistema oraingoz ez dago merkatu bat mantentzeko (ez finantzatzeko) prest eta uste dugu txikitasunean aritu beharraren sentsazioa sorrarazten duela. Antzerkia ez da gizarte zabalera iritsi eta publiko potentziala

askoz handiagoa da erreala baino, nahiz eta euskaltzaleen artean kultura babestu beharraren kontzientzia existitzen den. Antzerkia eta/edo euskal antzerkia oraindik ez da herriarena.

Errealitate horrek bi norabideren artean hautatzeko egoeran jarri gaitu. Alde batetik, borroka grina eta ekintzarako gogoa pizten dizkigu, eta bestetik, inoiz irabazi ezingo dugun bataila baten parean egotearen sentsazioa ematen digu, immobilismora eraman gaitzakeena.

Behar zehatzak ere baditugu: finantzaketa, publikoa, formatuaren araberrako zirkuitu argiak, estralurtarrak eta buzoneoa.

Guretzat finantzaketa dirua da, inbertsioa. Publikoa edo ikus-entzuleria arte eszenikoen barruan dagoen edozein espektakulu ikustera doan jende multzoa da. Formatuaren araberrako zirkuitu argiak, guretzat, espazioak edo antzokiak tamaina eta baliabideen araberrera bereizi ahal izatea da. Hala, ON, OFF, OFF-OFF edota SUPER OFF zirkuituen baitan dauden espazioak argi egongo lirateke eta horrek pieza bakoitzak hautatu duen zirkuitua osorik burutzea ekarriko luke. Zirkuituen xedea emanaldi *pack*-a bermatzea delako. Estralurtar kontzeptuak, guretzat, hitzak berak iradokitzen duen bezala, lurraldeen arteko mugikortasunari egiten dio erreferentzia. Behar ditugun zirkuituak ezin dira lurraldeka zatitu. Azkenik, buzoneoa. Antzinako bandoa edota panflettoa zena eta egungo sarrera ontzia edo insta publikazioak izan daitezkeenak, non talde katalogo bat eta euskal antzerkiko urteko egutegi bat eskainiko den. Beharrezkoa dugu euskarazko antzerkiaren urteko egutegi bat izatea, bai sarean eta baita etxebizitza guztietako buzoietan ere. Nahiz eta programazioa guztiz ezin zehaztu, garrantzitsua iruditzen zaigu, egutegi formatuan, Euskal Herrian urte osoan zehar emango diren antzezlanen eta jaialdien berri edukitzea.

Libertimenduetatik Zurrumbilo jaialdiraino, Lekeitioko Kalekatik Gazteszenaraino, makrofestibal baten egitaraua izango balitz bezala.

Era orokorrago batean, nahitaezkoa iruditzen zaigu el-karte baten baitan denok bat egitea. Uste dugu garrantzitsua dela instituzioei, sektore modura, gure beharrak eta eskakizunak helaraztea eta ikasgai pendiente hau praktikatzen hasi beharko ginateteke. Horretarako, noski, jada martxan den plataforma bat baliatzea litzateke egokiena: EHAZE, EAB, WTF... Bestalde, profesionalaren plano pertsonalera joz, ekintzak ikuspuntu kolektibotik abiatzea proposatzen diogu norbanako bakoitzari, hartzen ditugun hainbat erabaki onuragarriak izan daitezkeelako kolektiboarentzat.

Orain artekoak lastoa besterik ez dela iruditu ez denezan, irudimenezko hiru proposamen zehatz helarazi nahi dizkizuegu:

1. Bermatu daitezken zirkuitu estralurtarrak:
Aurretik nahiko ondo azaldu dugun hobekuntza, sektoreari on egingo liokeena.
2. Topaketa: bazkaria-prestakuntza-solasaldia:
Euskarazko antzerkian parte hartzen dugun orok edukiko dugun zita. Elkarbizitza eta komunitatea sortze aldera, norberaren profesionaltasunari apelatu nahi diogu urtero egingo den topaketara bertaratu dadin. Guztion mesederako diren erabakiak hartzeaz gain, talde modura indartu beharra daukagu, antzerkilarion ahotsa indartzeko. Egun batez koexistentzia posiblea dela demostratu, bizirik gauden hamsterrak garela ospatu, talde izaera sendotu eta elkarrengandik zerbait ikastea litzateke helburua. Gero, noski, beti bezala, bakoitzak berea egin dezala, antzerkiaren aniztasuna errespetatuz.

3. Antzoki bakoitzean konpainia egoiliarrak:

Azken proposamen hau epe ertainerako bada ere, zoragarria iruditzen zaigu. Proposamen sinplea da, gure lurraldeetan hainbat antzoki daude, gehienak publikoak direnak. Hiri, herri ertain eta txikietan topatu ditzakegu eta askok, programazioari begira egiten dute lan gehiena. Antzoki publikoak diren heinean, haien erabilpena aldarrikatu nahiko genuke. Hiritarrok ordaintzen dugun zerbitzu hau antzerki taldeek erabiltzea osasungarria iruditzen zaigu bai sektorearentzat gai gizartearentzat berarentzat. Begitazioa zehaztuz, bi urteko egonaldiak irudikatzen ditugu, konpainia guztiek bi urtetik behin aukera berdinak izan ditzaten, eta baita ere haien proiektuak burutzeko denbora nahikoa izan dezaten. Antzokien kudeaketa praktikoa eta erabilgarria bermatze aldera, aste barruko goizak konpainien errepikentzat irudikatzen ditugu eta arratsaldeak talde amateur eta ume eta gazteentzako ikastaro finkoentzat. Horrela, profesionalen eta amateurren arteko lehiakortasun harremana hautsi eta sinergiak sortuko lirateke. Egutegia antzokiaren arabera finkatu beharko litzateke, kasu askotan programazioa lehenetsi beharko baita. Ordu askoz hutsak dauden espazio eszenikoak antzerki taldeen lantoki bilakatea probetxuzko neurria izateaz gain, justua iruditzen zaigu.

Hori dena uste dugu, gaur.

Eta segur aski, baita bihar ere.

Icebergaren ipurdia

Oier Guillan Bermudez

Gauzak erabat aldatu dira eta, era berean, ez da ezer aldatu. Oraindik ere gogoan dut COVID-19ak hirugarren mutazioa izan eta mundu osoko jendartea tsunami unibertsal baten moduan astindu zuen unea. Lehenengo itxialdia oporraldia izan zen gerora etorri zenaren aldean: mutazio berria espero ez genuen moduan zabaldu zen adin eta kokapen geografiko guztietara, kutsapena modu lazgarrian gauzatuz.

Gaurko egunean, azkenean, enegarren konfinamendu isilaren ostean, zientzialari *free lance*-en sare osatu berri baten oparitu du txerto erabatekoa, *Bakunin* izenekoa, modu klandestinoan. Horrela, jendartearen mailarik apalenetan hasi da osasun bidea, sistema post-kapitalisten berreraikitzean abantaila emanaz aurrepandemian Lehen Mundua deituriko horretan. Gure txanda iritsi denerako guztiz eta erabat aldatuak dira botereguneak; are, autogobernu berriek ez dute jada botere terminoetan gauzatzen haien paradigma, indarguneen ideia gainean baizik, elkertasunean eta zaintzan oinarritutako formula matematiko konplexu bati esker sistema mundiala hankaz gora jarri dute, deszifratu ezinako algoritmo baten bidez botere hartze politiko eta militarrei egoera ikaragarri zailduz. Baina ez nator guztiok dakiguna azaltzera. Memorian atzera egiten nabiltan honetan ekidin ezina zait sarrera hau, nondik gatozen oroitzeko, pandemiaren mutazio definitiboaren aurretik gure pentsamoldea zenera bueltatzeko.

Bakunin bakuna Lehen Mundua deiturikoan kalean bizi zirengana heldu zen lehenik, arestian aipatutako sare klandestinoari esker; horien ondotik iritsi zen paperik gabekoengana, agureengana, ikastetxe publikoetara eta ondoren pribatuetara. Hortik aurrera kultur arloko langabetuei eman zitzaigun txertoa opari jasotzeko ohorea. Inork ez genekien nolakoa zen *Bakunin*, baina itxaropena ematen zigun haren

berri izateak, eta horrek bizirik mantentzen gintuen. Kaletik bueltaka ibiltzen ginen askok iskinaren batean, inork ez jakin nork eta nola, norbaitek txertoa eskainiko zigun unearen zain. Hala ibili nintzen ni eta, benetan, bai, *Bakunin* espero ez nuen moduan heldu zitzaidan azkenean. Droga salbatzailea pasa zidan pertsonak dagoeneko askok ezagutzen dituzuen arau sekretuak transmititu zizkidan, txertoa jasotzearen truke. Eta denbora luzez pentsatzen jardun ostean, arauoi erantzunez nauzue hemen lerro hauek idazten. Zer egin nezake besteen alde, itxuraz ezertarako balioko ez duen arren? Ez zait erraza egin kontu honi irtenbidea ematea, baina argi nuen jendarteariaren etapa berri honetan kulturarekin zerikusia izan beharko zuela nire ekarpenak. Egin dezagun, beraz, atzera, lerro hauen zergatia ulertu arte.

Kurioski, Euskal Herrian bertan gertatu zen mutazio berriaren eztanda, edo are zehatzago, baskongadetan. Inork ez zuen espero halakorik. Nola asmatu birusak bide hori harrezakeenik? Gorputzetik ahotsera zabaldu zen gaitza eta, ondoren, ahotsetik hitzetara. Airetik zetorren heinean hitz egiteak berak kutsatzen zituen pertsonak, eta azkenean, hitzak kutsatzen hasi ziren. Hitz batzuk gaitzak hartu zituen, eta hitz horiek erabiltzen zituenak larriki kutsatzen zituen hitzok entzuten zituenak, kasu batzuetan, heriotzaraino eramateraino. Hasiera batean kaosa erabatekoa izan zen. Birusaren inguruko informazio berria ezagutzera eman zeneetik, izuak hartu zituen sistema kapitalistaren maila guztiak. Dagoeneko ez zen inor salbu, maskarek ezin gintuzten kutsatua izatetik babestu, ezta gai honetan eskuak garbitzeak ere. Beraz, agintariak ere ez zeuden salbu; COVID-19aren agerpenarekin erraza zen dena haientzat, gizarteko pertsonarik prezindibleenak bakardadera kondenatu, eskulturaren batekin oroitu tarteka plaza ahazturen batean, eta batez ere jendea lanera bidali. Horrek salbatu behar gintuen,

bigarren oldarraldian kaleek su hartu zuten arte. Baina hor-
tik, berehala, inork espero gabe, hirugarren olatua: birusa
hitzetara igaro da, literalki. Orduan hasi ziren benetako neu-
rri zorrotzak hartzen: debekatuta geratu ziren hitzarekin
zerikusia zuten jardunbide guztiak, berdin Netflixeko tele-
sailak, liburuak edo egunkarietako iritzi artikuluak; berdin
terrazetako solasaldiak, manifestuak edo lanturuak. Hitza
erabiltzea debekatu zuten, eta zeinu hizkuntza ikasi behar
izan genuen guztiok, ez zegoelako argi zein hitz zeuden
kutsatuta. Itxialdiak isilaldiak bilakatu zituzten, eta etxe-
ko egonaldietan isilik egon behar izaten genuen. Egoera horre-
tan soilik bi gune motak izan zuten hazkunde ekonomikoa:
eroetxeek, eta meditazio zentro budistek. Baina hori beste
istorio bat da.

Ez zait sekula ahaztuko Eusko Jaurlaritzako kargu guztiak
larriki gaixotu ziren unea. Kurioski, hitzaren bidez transmi-
titutako birusak beste muturrera eramaten zituen gaixoak:
esnatzen zirenetik hitzezko sukarraldiak jotzen zituen, hitz
egiten hasten ziren gomitoka bezala, abiadura bikoitzean
jarritako Fidel Castroren diskurtso bat bailiran, izukaitz.
Esnatzen ziren une beretik burutik pasatzen zitzaaien guztia
esaten hasten ziren, eta baita burutik pasatzen ez zitzaiena
ere. Hasieran dibertigarria iduri zezakeen, iritzi artikulua eta
txioen bazka, baina laster kezkgarria izaten hasi zen: hitzen
arteko isiluneak irentsi nahian bezala jarduten zuten guz-
tiek. Berdin zion politikaz, gastronomiaz edo lorezaintzaz.
Eta, ez zegoenez zein hitz zeuden kutsatuak jakiterik, laster
lokartu behar izan zituzten, hizlariak beren buruak etenga-
be kutsatzen zituztelako susmoa zabaldu zelako.

Herria isilaldietan konfinaturik, Jaurlaritzako agintari-
rik gabe, berehala etorri zen mundurako jauzia, eta hor hasi
ziren gauzak argitzen: Kanadan sortu zen hurrengo fokua,
eta handik, euskal etxeen bitartez, mundu osora pasa zen.

Zer ari zen gertatzen? Ingelesak eman zigun erantzuna: Etxepare institutuak munduan zehar antolatutako luntxetan zabaldu zen gaitza, ingelesezko solasaldi masiboetara jauzi eginda, eta hor jarri zuten arreta mundu osoko Nobel saridunek eta nobelagile nazional eta autonomiko sarituek, zientzia eta irudimena lehenbiziko aldiz mundu mailan elkarlanean jarrita. Orduan lortu zuten, kutsatu bakoitzaren elkarrizketak aztertuta, kutsatuta zeuden hitzak detektatzen hasia: “profesionala”, “amateurra”, “kultura”, “langile”, “estatutua” bezalako hitzak ziren kutsatuak zeudenak, inork ez jakin nola, inork ez jakin zergatik. Baina, handik gutxira jakin zenez, hitz horien elkartzeetan zeuden birusaren aldaerarik arriskutsuenak. Urteak daramazkit, kasu, hitz horiek ezin ahoskaturik, gaixotzeko beldurrez, eta, gaurko egunean, lasai esan eta idatz dezaket: “kultur industria”. Konbinazio horretan azaleratzen omen zen pertsonak itolarriraino hitz egitera derrigortzen zituen birusaren aldaerak; berdin demokraziaz, herriko jaiez edo komuneko paperaren testurez, lehertu arte hitz egiten hasten ziren. Hori dela eta, debekatuak geratu ziren hitzok, eta pixkanaka hitz guztiok, *Bakunin* txertoa iritsi arte. Txertoaren zabaltzaile klandestinoen azaldu dutenez, John Cagerek diseinaturiko kutxa isiletan itxita daude oraindik goi enpresari, politikari profesional, programatzaile eta kazetari zenbait –zorionez, bazen haien artean, oraindik ere “kultur industria” termino kutsatua erabiltzen ez zuenik–.

Latza izan zen hainbeste pertsona gaixorik erortzen ikustea, nortzuk eta telebistako pantailetatik ordura arte gure etxeak gauero bisitatzen zituztenak. Lehenengoa gaixotzen, zero pazientea, Kultura eta Hizkuntza sailburua izan zen. Eskuinera lerraturiko komunikabide erdaldun batean kulturak pandemia egoeran tratu berezirik merezi ez zuela esanda, eskandalua sortu berri zuen sare sozialetan eta,

handik gutxira, korrika eta presaka, prentsaurreko bat eman zuen, kulturarentzako beste neurri magiko batzuen artean “langile estatutu” berri bat promestuz baskongadetako kulturgileentzat. Telebistako *reallity show*-ak ziren bere kutsatu ondoko sukarraldietako gaia, oulala, ez nioke inori halakorik desio izango –nire elkartasuna eta animo osoa harrentzat!–, baina gaitzak bere bide propioak ditu, gaitzak ez du ulertzen hitzen gaineko jabetzez. Baina, zergatik zabaldu zen mutazio berria baskongadetatik mundu osora? Ondoren egindako ikerketek diotenez, “kultur industria” terminoa mundu mailan gehien erabili den herrialdea omen da EAE. Harrigarria bada ere, Europako edozein herrialdek baino askoz gehiago gainera. Eta, ostera jakin denez, “industria cultural” erabiltzerakoan, auskalo zergatik, oraindik are larriagoa bilakatzen zen kutsaketa. Gaztelertatik beste hizkuntzetara pasatzean, mundu osora hedatu zen, beraz. Kurioski, baskongadetatik zabaldu arren, euskara salbuetsita geratu zen, kulturari buruzko adierazpen gehienetan euskara sinbolikoa izatetik bazterrekora izatera pasea zelako, batez ere gaztelera eta ingelesaren mesedetan, eta goi kargudun haiek ez zutelako apenas euskara erabiltzen hitz kutsatuotan. Nork esango zigun horren ondorioz mundu mailako hizkuntza nagusia euskara bilakatuko zenik, Trumpek berak ere bere adierazpenetan erabiltzen hasiko zenik ingelesezko hitzak goitik behera kutsatu ostean (Trump izan zen kutsatzen azkenetarikoa, ez zuelako behin ere “kultura” hitza erabiltzen), kutsadura maila gutxiagoko hizkuntza izanik.

Eta banator, azkenik, *Bidenteak gara* liburu honetara. Bertako egileek ere askotan darabilte “kultur industria” kontzeptua, baina ez hura aldarrikatzeko, haren argi-itzalak eta zamak agerian uzteko baizik. *Bidenteak gara* COVID-19aren lehenengo olatuarekin sortu zen: Zurrunbilo jaialdia bertan behera geratu eta antolatzaileek gogoeta jardunaldi

telematiko bat antolatu zuten, itxialdiaren erdian. Jende askok parte hartu zuen bertan, eta haiei eskaini zitzairen *Bidenteak gara* liburuan parte hartzea. Baina, noski, hitz el-karketaren arriskua ikusita, Ertzaintza 2020ko azaroko Zurrunbilora azaldu eta egile guztiak atxilotu zituen, aretoan soberan zuten zinta amerikano metalikoa ahoak estaltzeko eta bridak eskuak lotzeko erabiliz. Esan gabe doa, lehenbiziko aldia izan zen antzerkilari sarda honen bizitzan, zinta amerikanoa eta bridak gizateriaren historiako asmakizunik onenak direla azpimarratu gabe.

Baina, hortik aurrera, *Bidenteak gara* liburu debekatua mito bizia bilakatu zen. Zientzialari Nobel saridunak eta nobelagile nazional eta autonomiko sarituak sariei uko egin izandako zientzialari eta nobelagileekin elkartu ziren, sare are zabalago bat osatuz, baina oraingo honetan, gobernuen aginduetatik at, klandestinitatean *Bakunin* bakunaren bila hasi ziren. Horretarako, *Bidenteak gara* liburuan soluzioa egon zitekeela aipatzen zuten: “kultur industria” hitzaren erabilera desproporzionatuak bultzatu bazuen mutazio berria, “kultur industria” hitzak asmo desegituratzailez erabiltzen zutenen esaldietan egon zitekeen antidotoa. Eta, antza, liburu debekatuaren ale bat topatu, eta bai, han zegoen erantzuna, baina hori beste hitzoste baterako gaia da. Oraingoz pozik aurkez diezazuekegu *Bidenteak gara* liburu postpandemikoaren lehenengo berrargitalpen librea. Zeuk, irakurle, ikusle aktiboa zarenez, eta ez “kultur industriaren” garaian entretenimenduko kultura (zilegiaren) hartzaile pasibo eta akritikoa, zeuk zerorrek liburua irakurrita topatuko duzu txertoa, edo erantzuna. Eta, akaso, zeure kabuz sendabidearen hitzak topatuta, ez duzu *Bakunin* txertoaren zain egon beharko.

Amaitzeko, gogoan dut EHAZE elkarteak garai aurrepandemikoetan egiten zuen aldarria: kultur industria arte

eszenikoen (eta, oro har, kulturgintzaren) icebergaren punta baino ez da, ikusten dena, saltzen dena, titularretan eta diru laguntzetan lehenesten dena. Baina iceberg punta horren azpian iceberg osoa sostengatzen duen gorputza dago, bazuetan ito beharrean, izugarri zabala, anitza, aberatsa eta beharrezkoa dena: kultur industriaren zentzurik estuenak aintzat hartzen ez dituen antzerki konpainiak, kultur elkarte gisa egituratutako taldeak, sormen prozesuak, mediazioak, formatu esperimentalak, talde amateurrak, talde erdi-profesionalak, antzerki eskolak, antzerki irakasleak, kultur antolatzaileak, publiko aktiboa izan nahi dutenak, programazio herrikoiak... bide batez, icebergaren punta sostengatzen dutenak. Baina, gatozen harira, guztiak osatzen du iceberg, iceberg bera da beroketa efektu globalagatik galtzear dena, osotasunean urtzen ari dena. Beraz, defenda eta babestu dezagun iceberg, bere osotasunean. Kultura ondarea da, behar sozial bat, eta ideia horretan oinarritua egituratu behar litzateke arte eszenikoen arloa, batez ere diru publikoaz mintzo garenean, eta ez entretenimenduaren kulturaren arabera, ez kultur industria kontzeptuaren arabera. Izeberga osorik hartu behar dugu kontuan.

Halakoak defendatzen zituen 2020an EHAZEK, eta haiek gogoan, zera diot: irakurle, liburu honetan duzu icebergaren ipurdia, eta garai pandemiko hauetan kultura hain egoera zailean jarri duten hitzenezako sendabide posible bat.

BIOGRAFIÁK

Arantzazu Fernandez Iglesias (Donostia, 1961)

Euskal Filologia eta Filologia Hispanikoan lizentziaduna. *Mende aldaketako (1990–2010) euskal antzerkiaren jorak: antzerki egitura eta korronte estetikoak* tesiaren egilea. Ikerlari independente moduan antzerkigintza garaikidea lantzen du batik bat. Itzulpen literarioren arloan bere azken itzulpena *Ganbila* bildumako Sarah Kane antzerki idazlearen *Zartatua* eta *4.48 Psikosia* ditugu. Egun, Hernaniko Institutuko irakaslea eta EHAZEko zuzendaritzako kidea da. Gainera, azken boladan, euskarazko antzezlanen kritikari jarduten du *Gara* egunkarian.

Patricia Urrutia Urieta (Bilbo, 1977)

EHUn Filologia Klasikoan lizentziatua. Antzezle-ikasketak burutu zituen Philipe Gaulierrekin (London) eta Mar Navarrokekin (Madrid). Horrez gain, musika eta biolin-ikasketak ditu. Hizkuntzak, antzerkia eta musika zorutzen maite ditu. Antzerkia antzeztu, idatzi, zuzendu eta, azken urteotan, Benetan Be Teatroaren jaiotzatik, ekoiztu ere egiten du. Nekeak neke, ardurak ardura, munduko beharrik onena daukalako konbentzimendua dauka.

www.benetanbe.com

Amaia Irazabal Blanco (Santurtzi, 1990)

Psikologia ikasi ondoren, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean jaso zuen antzerki-prestakuntza. Handik aurrera, aktore lanetan aritu da. Alde batetik, antzerkian, bakarka eta taldeko sorkuntzetan, eta baita beste hainbat konpainiarekin ere. Bestetik, kamera aurrean, film labor batzuetan eta telebistako telesail bitan parte hartu du. Egun, txotxongilo antzerki talde batean dabil lanean.

Iñaki Ziarrusta Hernaez (Bilbo, 1974)

1993an Bilboko konpainia batean antzerkian hasi eta hamazazpi urte eman zituen bertan, prestakuntza autodidakta jasotzen eta mundu osoan zehar lan egiten. 2010ean Atx Teatroa sortu zuen: «suerte apur bategaz maite dudana artea, jendea eta proiektua aurrera errotan hilko naiz, halan bedi». www.atxteatroa.eus

Itziar Rekalde Luzarraga (Bermeo, 1955)

Antzerkigintza eta ahozkotasuna tartekatzen ditu sortzaile, antzezle edota zuzendari modura. Ahozko memoria familiarri buruzko proiektua diseinatu eta zuzendu du. Beste diziplinetako lagunekin era askotako pieza eszenikoetan saltseatzea ere gustukoa du.

Ane Gebara Gonzalez de Axpuru (Gasteiz, 1989)

Gasteizko kaleetan hezitako neska. Irakasle-ikasketak burutu ostean, ikasketak alde batera utzi eta ipuinak kontatzen hasi zen. Intuizio, prestakuntza, gogo eta irribarre artean indarrak hartu eta horretan dabil azkenaldian. Ipuinez gain, antzerki munduan sartu berri da, eta horrek ateratzen dizkio azkenaldian barrerik sakonenak.

Gontzal Uribe Cuerno (Portugaleta, 1984)

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua, Gasteizko Tranpola antzerki konpainiako kide da. Baratza aretoko sormen eszeniko laborategian hainbat urtetan ibilia, Parasite kolektiboarekin kolaboratu izan du. Bere azkenaldiko erronkak: *Prospectus Vitae* bere bakarkako antzezlan euskarazko bertsioan taularatzea eta Pablo Ibarluzearen nazioarteko eskolako prestakuntza (C.E.C.) jasotzea.

Marina Suarez Ortiz de Zarate (Gasteiz, 1988)

Artista bisuala eta antzezlea. Sortzaile gisa Baratza Aretoan hazi zen, eta bertan sortzen eta lan egiten du. Bere lana arte plastiko eta eszenikoen arteko mugetan mugitzen da, eta Tripak kolektiboko sortzaile eta kide ere bada.

Instagram: *marina.szo*

Horman Poster kolektiboa

Duela hamar urte Matxalen de Pedro eta Igor de Quadrak hasitako kolektiboak Xanti Agirrezabala, Maite Aizpurua eta Jon Ander Urresti artista gazteen partaidetza du 2019tik aurrera. Sinbiosi horrek esperientzia eta freskotasuna gurutzatzen dituen kolektiboa izateko helburua du.

www.hormanposter.eus

Telmo Irureta Uria (Zumaia, 1989)

Irakasle-ikasketetan diplomatua eta Pedagogian lizentziatua. Antzerki-ikasketak Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrearrean burutu zituen eta oholtza gainean egin dituen lanetatik badira bi oso aipagarriak: *Toquecito minus* eta *Striptease*. Bestetik, *La que se avvicina* telesailean hartu du parte.

Maite Aizpurua Olaizola (Zumaia, 1990)

Kuriositate aseezineko galdegile herrena. Soziologia eta Kultur eta Gizarte Antropologia ikasketak (EHU, UFBA) burutu zituen, eta ondoren, Goi Mailako Arte Dramatiko ikasketak (TAE, Dantzerti, 2019).

Azken urteetan Metrokoadroka kolektiboarekin kolaboratu izan du eta Horman Poster kolektiboko kide da. *Erresistentzia arazo fisikoa da* sorkuntza propioarekin dabil martxan.

www.mao.eus

Eneritz Artetxe Aranaz (Gernika, 1972)

Haur Hezkuntza, Musika eta Antzerki prestakuntza dituen antzerki sortzaile eta pedagogo da. Hainbat antzerki zein ikus-entzunezko produkzioetan lan egin ondoren, 2010. urtean Dxusturi Teatroa sortu zuen. Proiektu horren bidez bufoiaren izpiritua eta gorpuzkera lotu dizkie zenbait testuri, *Konpota* eta *Karramarroa* antzezlanak, kasu. *Karranbola hirukoitza* (EHAZE, 2019) saiakera eta *Isiltasuna* (Susa-EHAZE, 2020) antzerki-testuen liburua argitaratu ditu.

Gaur egun, Dxusturi Teatroaren hurrengo sormen lanean murgilduta dago, eta baita ere artea eta antzerki-hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat proiektuekin elkarlanean. Horrez gain, EHAZEko zuzendaritzako kide da 2015. urteaz geroztik.

www.dxusturiteatroa.com

Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garayalde (Gasteiz, 1977)

Kazetaritza eta irakasle-ikasketak ikasketak ditu eta bi arlo horietan lan egin izan du, batez ere kazetaritzan hogeitabat urtez (*Gara* egunkarian eta *EITB*ko irratieta, besteak beste). 2011n antzerkigintzarekiko grina piztu zitzaion, eta orain arteko ibilbidean murgildu zen (*Baratza Aretoko Laborategian*, TAEko ikastaroetan, EHUko aktore ikasketetan), 2017an modu profesionalean aritzea erabaki zuen arte. *Pez Limbo* konpainiarekin eta *Parasite* kolektiboarekin egin du lan orain arte, eta *Tranpola* taldeko fundatzailea da.

<http://tranpola.es/josune-velez-de-mendizabal/>

Formol Laborategia

Edurne Azkarate, Mikel Iburguren eta Intza Alkainek osatzen dute Formol, 2019. urtetik. Euskal antzerkian gazteek daukaten tokia esploratzeko nahitik eta bide berrietan sarkontzeko motibaziotik jaio da taldea. Belaunaldi baten aho-tsak, gorputzak, iruditeria eta kontatzeko modu propioa deskubritzea eta beste gazte sortzaile batzuekin saretzea dute helburu. Gasteizko Gazte Sortzaileak bekari esker *Maketa* proiektua (2019-20) abiatu zuten eta, horri jarraituz, *Album* proiektuan barneratu dira (2020-21).

Instagram: *@formol_konpainia*

Oier Guillan Bermudez (Larratxo-Orereta, 1975)

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Mikelazulo kultur elkarte-ko kide eta koordinatzailea izan zen urte luzez, eta gerora, Metrokoadroka kolektiboko kidea. Azken horrekin *Miss Karaoke*, *Zanbuia!* eta *Munduko Poesia Kaia* ditu azkeneko lan eszenikoak. Literaturan, *Mr. Señora*, *Zauri Bolodia* eta *VHS* liburuak ditu titulurik berrienak.

www.metrokoadroka.eus

